



Virginia Imaz  
'clown'-ari  
elkarrizketa

Sare sozialetako  
Debagoieneko  
'influencer'-ak



## Eskolara itzuli aurreko jolas egunak

Debagoieneko herri guztietan egin dituzte  
umeendako jolas ekintzak Gabonetan / 4

Txatxilipurdik Arrasaten antolatutako  
Gabonetako parkean jolasean.

XABIER URZELAI



## "Ikus-entzunezkoetan du zuloa euskarak, eta tresna berritzailea da laborategia"

MIKEL IRIZAR HIZKUNTZA BERDINTASUNEN FORU  
ZUZENDARI OHIA

## Bertso Txapelketa Nagusiko finalean jardun zuten zazpi bertsolari Oñatin izango dira gaur / 29

SINADURAK



MAIDER  
ALDAI / 18



IÑAKI  
ETXEBESTE / 6



AINZANE  
OIARBIDE / 40



# "Aukera ederra izan da eragiteko tokian egotea"

**MIKEL IRIZAR** FORU ALDUNDIKO HIZKUNTZA BERDINTASUNeko ZUZENDARI OHIA

Kargua uzteko erabakia hartu eta gauzatu egin du; gustura antzematen zaio bi urte eta erdiko tartean egindako lanarekin. Uste du dinamika interesgarriak abiatu direla

**E. Azkarate / L. Zeberio** ARRASATE

Agintaldia amaitu aurretik eta arrazoi pertsonalengatik utziko du kargua Mikel Irizarrek. Pozik da egindakoarekin, eta baikor emaitzak ikusiko direlako. **Ez zara proiektuetan luzaroan jardutekoa...?**

Ez dut ikasi entusiasmoa dosifikatzen; dena ematen dut eta hustu egiten naiz. Bi urte inguru irauten dit pilak, izan Arko, Goiena, Topagunea/Tokikom... Oraingoan, bi urte eta erdi izan dira, indarrak gabe nago.

**Beste arrazoirik bada kargua orain uzteko?**

Bai; emazteari osasun arazo bat agertu zaio, eta ez dut zalantzarik izan: bere ondoan egon behar dut. Horrek jarri dit data.

**Zure izendapenak ezustean harpatu zuen bat baino gehiago, zu ez zarelako alderdikoa; bai, ordea sektorea ondo ezagutzen duena...**

Bai, ez da oso ohikoa. Zubigintzan jardutea eskatu zidaten, eta konfiantza osoz aritu naiz. Askok eskertzen diet Aldundiko arduradunei egindako enkargua, eta utzi didaten soka luzea; baita sektoreak erakutsi didan errespetua eta lankidetzarako prestutasuna. Aukera ederra izan da gauzak aldatzen ari diren honetan eragiteko tokian egotea.

**Ze aurkitu duzu Diputazioan?**

Besteak beste, aukera bat tokatu zait parean, berrehun urtez behin gertatzen dena: kudeake-

ta ereduaren aldaketa. Oraingo eredu Frantziako iraultzarena da, XIX. mendekoa; eta euskal administrazioetan beste bat dator, XXI. mendeko enpresetan nagusi dena, kalitatean eta emaitzetan oinarritutakoa. Bada, guk aldaketa hori baliatu dugu hizkuntzaren aldagaia –eta zeharkako politikak– eredu berriaren ardatzean kokatzeko, kudeaketa tresnetan txertatuta. Horrek esan nahi du edozein ataletako arduradunak izango duela baita hizkuntza kudeaketaren ardura. Horri esker, hurrengo plangintzaldian Gipuzkoako Aldundian hasiko da sistematikoki laneko hizkuntza kudeatzen. Aldaketa ikaragarria da, eta bost urte barru emaitzak oso agerikoak izango dira.

**Lan erraza izan da?**

Ez, zubiak berreraikitzea ez da lan erraza. Baina helburuak ilusio handia piztu zidan, eta tarteko lorpenek indarra eman didate... gastatu den arte.

**Kargua hartu berritan esan zenuen aurrekoa apurtzeko asmorik ez zeneukala. Hala izan da, jarraipena eman diozu Zigor Etxeburuak aurreko agintaldian egindakoari?**

Ez nentorrela ondo egindako ezer apurtzera, hori esan nuen. Eta, ustez, bete dut. Gipuzkoako Aldundian euskararen aldeko estrategia metatu bat dago, talde teknikoak gidatuta, eta txandakako *politikariok* horri lagundu behar diogu.

**Garbiñe Mendizabal da zure ondorengoa. Aholkurik emango diozu?**

EAJ taldearen euskara ardura duna da Legebiltzarrean eta oso hurbileko harremana izan dugu. Transmittituko diot zertan gabiltzan, eta hortik aurrera badauka nahiko irizpide gauzak bere estilora egiteko.

**Bi urte eman dituzu, baina proiektuak bideratuta utzi dituzu?**

Proiektu zehaztatetik harago, uste dut dinamika interesgarri batzuk abiatu direla, bai erakundearen barruan eta bai gizarteari begira. Horiek ondo bideratuta daude.

**Gogoeta estrategikoa egin zenuen Diputazioetik abiatuta, euskalgintzako sektoreko kideekin batera. Besteak beste, aipatu izan duzu euskalgintzak baduela gizartera, kanpora, zabaltzeko premia. Igaritzen duzu irekiera hori?**

**"ZUBIGINTZAN JARDUTEA ESKATU ZIDATEN, ETA KONFIANTZA OSOZ ARITU NAIZ"**

**"ALDAKETA IKARAGARRIA DA, ETA EMAITZAK OSO AGERIKOAK IZANGO DIRA"**

Hau da dinamika horietako bat. Euskararen gizarte erakundeak gogoetan ari ziren aspaldidanik, eta Aldunditik lagundu egin diegu aurrerabidea zehazten, berrikuntza palankak identifikatzen, jardun-esparru eta molde berriak bilatzen... Emaitzak etorriko dira.

**Euskarazko hedabideen eta erakunde publikoen artean hedabideei egonkortasuna emango dien iturenaren aldekoa zara eta hori bultzatu duzu. Gertuago ikusten duzu? Zer ekarriko luke horrek?**

Deialdien sistemak gabeziak ditu berme juridikoan, egonkortasun ekonomikoan, eraginkortasunean... Ez da tresnarik emankorra lankidetzaren sistematikoa eta ekimen partekatua aurrera eramateko. Horregatik hasi ginen esplorazioan sektorearen eta erakunde publikoen artean, unibertsitatearen laguntzarekin. Badaude formula kontzertatuak beste sektore batzuetan, zergatik ez hemen? Urtebeteko bide bat egin dugu eta oraintxe da unea balizko akordioa zehazteko. Uste dut lortuko dela.

Akordioak ekarri beharko luke euskarazko komunikazio sistema baten oinarria finkatzea: ikuspegi bateratua etorkizunaz, adostasuna funtzioei buruz eta behar diren baliabideetan, neurketa eta ikerketa metodoak, lankidetzarako egitura egonkorak...

**Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren baitan gauzatu den edo gauzatzen hastear dagoen euskarazko ikus-entzunezko laborategia bada bultzatutako egitasmo bat. Ze garrantzi eman diozu?**

Energia asko jan dit gai honek, hain zuzen, garrantzi handikoa delako. Ikus-entzunezkoetan du zulo handia euskararen prozesuak, eta behar zen sektoreari laguntzeko tresna berritzaile bat. Hori da 2deko laborategia, eta uste dut bete-betean asmatu dugula.

**Noiz abiatuko da proiektu hori Tabakaleran?**

Aldundiaren partea bukatu da, eta orain, Tabakalerari dagokio erabakiak hartzea. Uste dut hilabete gutxiren bueltan martxan egongo dela 2deko.

**Ze espazio izango du? Irekia izango da sektoreko erabilzailentzako? Ze aurrekontu izango du?**

Proposamenean aurreikusi dugu 500 metro karratu inguru izango dituela, oso polibalenteak. Sektorearen parte hartzea ezinbestekoa da laborategiak aurrera egin dezan, baita herritar sortzailena eta kontsumitzaileena ere. Hori ez badu lortzen pare bat urtean, hobe ixtea. Aurrekontua ez du oso handia beharko, eta Tabakaleraren aurrekontu orokorrean txertatuko litzateke.

**Euskarazko ikus-entzunezkoen sektorea atomizatuta eta ahal duena egiten ari dela zioen Goienako**



XABIER URZELAI

### zuzendari nagusi Iban Arantzabalek laborategiaren aurkezpenen. Badauka soluziorik arazo horrek?

Bai, noski: bide berriak bilatzea, lankidetzaz ezohikoak eraikitzea, pantaila eta kanal anitzeko garaiotara egokitzea... Anbizioa eta ilusioa berreskuratzea, finean. **Sektorea gertu ikusten duzue egokitze, erronka berriei eusteko?** Laborategiak piztu duen espektatiba bada zerbaiten seinale. Dagoeneko EITBk eta EIKEN klusterrak adierazi dute laborategian parte hartu nahi dutela, eta gainontzeko eragileak ere formulak zehaztu zain daude. Badago borondatea.

### Eta erakundeak bidelagun izateko benetako apustua egiteko?

Laborategiaren aurkezpenen Jaurilaritza, Aldundia eta Donostiako udala egon ziren, Tabakalerako hiru akziodunak. Eta sormena sustatzeko estrategia nazionala azaldu zuten, kultura eta sormen industriaren esparru ezberdinetan, Tabakalera jardura horretan erreferente bihurtuta. Ezin argiago geratu zen konpromisoa.

**Bada kezka bat euskaltzaleen artean, erakundeen artean, eta hizkuntzen berdintasunaren alde dihardutenen artean, euskararen erabilerak ez duelako aurrera egiten. Zer gertatzen da?**

Euskara jakitea ez dela aski arrazoi euskaraz egiteko, baldintzak sortu behar direla horretarako. Esparru arautue-

tan –administrazioa, esaterako– araua eta plangintza dira tresna nagusiak; baina esparru librean hainbat baldintza bete behar dira aldi berean, hiztunak euskaraz egingo badu: bere gaitasuna eta gogoa, solaskidearen gaitasuna eta jarrera, bien arteko indar erlazioa, egoera zehatza eta giro orokorra...

### Zer egin horri aurre egiteko?

Erantzuna badator, eta kolektiboa da. Gaitasunei buruz, bidean da ikasketa prozesua doan izatea; eta baita ere ulermen oso azkar lantzeko metodologia. Jarreretan, berriz, hiztun komunitateak berak erakutsi du bidea: *Euskaraldia*. Hau da, 365 egunez hurbilean lan egitea, hizkuntza ohiturak aldatzeko aukerak identifikatzen eta lantzen; eta urtean

## "IKUS-ENTZUNEZKOETAN DU ZULO HANDIA EUSKARAREN PROZESUAK"

## "2DEO LABORATEGI PROIEKTUAK PIZTU DUEN ESPEKTATIBA BADA ZERBAITEN SEINALEA"

behin olatu nazional bat sortzea, kolektiboaren energiarekin indartzeko eta hurrengo urtean egunez egun urratsak egiten jarraitzeko. Euskal Herri osoko administrazioak eta gizarte erakundeak parez pare elkar hartuta bildu dira ekimenera; indar horrek bazterrak astinduko ditu, ziur nago.

### Euskalgintzaren diskurtsoak berri behar direla zenioen kargu hartu berritan. Bada berritzen?

Nik berdintasunarena erabili dut eta oso eraginkorra izan da: alde batetik, beste hainbat eraldaketa prozesuarekin uztartzeko; eta, bestetik, euskarari bizkar emanda zeudenei gogorarazteko haiek ere badutela gutxienez euskara ulertzeko ardura, ez badute euskal hiztunen berdintasuna zapaldu nahi. Hori bezala, xede talde ezberdinei egokitzen zaizkien diskurtsoen sorta garatu behar dugu, ahalik eta jende gehienarengana iristeko. Berrikuntza sozialaren diskurtsoa, edota aniztasuna eta hizkuntza ekologiarena daude orain puri-purian.

### Orain, zer? Deskantsua erabatekoa?

Ardurak utzita deskantsua hartzen da, dudarik gabe. Erabatekoa? Zuzendaritzako dinamikekin konprometituta jarraituko dut, laguntzeko prest. Eta euskaltzaleasuna betiko da, hori ez dut utziko.

## Osakidetzako larrialdi zerbitzuak bete-beteta, gripeagatik

Gabonetan epidemia maila gaintu du gripeak. Bailaran ere, gaixoz gainezka egon dira larrialdi zerbitzuak

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA

Gabonen aurreko astea ezkerreko epidemia maila gaintu du gripeak Euskal Autonomia Erkidegoan. Epidemia mailara iristeko 100.000 biztanleko 52,46 kasu egon beharko lirateke, eta pasa den astean, 100.000 biztanleko 160 kasuak gaintu ziren. Hori dela eta, Osakidetzak bihar arte luzatu du gripearen aurkako txertoa jartzeko kanpaina.

Gipuzkoa ere gogor astindu du gripeak, eta Debagoiengan larrialdi zerbitzuak eta ambulatorioak gainezka egon dira. "Egun hauetan, intzidentzia mailari dagokionez, muturrera heltzen gabiltzala esan dezakegu. Orokorrean, ospitaleak gainezka daude, eta, hori dela eta, errefortzuez gain, aparteko neurriak hartu behar izan ditugu. Gripea dela eta, artatzeak asko ugartu dira egunotan, eta egoera zaila

izan da. Horregatik, barkamenak eskatu behar dizkiegu pazienteei, artatzeetan atzeratzeak izan ditzugulako. Horrez gain, lehen mailako arretako zentroak erabiltzeko dei egiten dugu Debagoieneko Ospitaletik", azaldu du Ospitaleko Medikuntzako Koordinazio Asistentzialeko zuzendari Jesus Millasek.

"Azken bi aste hauek nahiko potoloak izan dira. Jende pila etorri da larrialdi zerbitzuetara gripearekin, eta, prozesu hauek ziklikoak direnez, oraingoz, epidemia mailan jarraituko dugula dirudi. Gainera, aipatu behar da haur asko gerturatu direla gripearekin, eta triajea, adibidez, nahiko poliki ibili da, gainezka egon gara-eta une batzuetan", azpimarratu du Debagoieneko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuetako arduradun Iñaki Agirianok.



**bertako**

Igoailuak | ascensores  
Igoailuen mantentze-lanak

---

**24 orduko**


asistentzia abisu guztientzat

---

**Iraupen-konpromisorik**

gabeko kontratuak

---

**Orotariko zerbitzua**

**100 €-tik aurrera**

---

**Euskarazko**

zerbitzua

---

LARRIALDI TELEFONOA DOAN

GARAIA Goiru 1A - Arrasate • 943 90 34 50  
www.bertako.eus • info@bertako.eus





Umeak puzgarriez gozaten, Eskoriatzako Gabon parkean. AMAIA TXINTXURRETA

## Bizi-bizi ibili dira umeak Gabonetako parkeetan

Ibarreko herri guztiek antolatu dute umeentzako Gabonetako eskaintza, bakoitzak bere erara. Bada, egun hauetan asko dira haur parkeaz gozatzeko aukera izan duten neska-mutikoak. Oro har, antolatzaileak "pozik" dira hitzorduek izandako harrerarekin

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Puzgarriak, bideo jokoak eta era guztietako tailerrak. Askok dira Gabon egun hauetan ibarreko umeen eskura jarri dituzten bitartekoak, denbora-pasarako, gehienbat. Oro har, Gabon parkearena galdu ezinezko hitzordua da askorentzat. Eta, salbuespenak salbuespen, antolatzaileak "pozik" dira parte hartzearekin. "Ume eta heldu asko dabil hemen inguruan. Polita da hori", azaldu du Iker Agirrek, Arrasateko haur parkeko koordinatzaileak.

Arrasaten, hain zuzen, "haurren garapen eta autonomia garatzeko lagungarri izan daitezkeen bitartekoak" jarri dituzte, betiere, "euskara eta heziketa oinarri harturik". Orokorrean, hori da Debagoieneko haur parkeek duten helburua. Beraz, hori kontuan hartuta eraikitzen dute egitasmoa, eta, tarteka, eskaintza berritzea dagokie. Eta, bitartean, "gustura" dabilta umeak. "Oso dibertigarria da.

Dena dugu gustuko", dio Arrasaten ziharduen ume kuadrillak.

### Edukiera mugari, irtenbidea

Esan bezala, galdu ezinezko hitzordu da askorentzat. Eta horrek moldaketak egin beharra ekarri die zenbait herriri. Horren adierazle da Bergarako kasua: haur parkeko bi espazio dituzte, eta aurrean, moldatu beharra izan dute horietako adin muga. Bada, aurtengoan, 8 urtetik beherakoentzat izan da pilotalekuko espazioa –6tik beherakoentzat beharrezko, eta kiroldegian jardun dute gainerakoek. "Edukiera eta espazio mugari aurre egiteko hartu dugu erabakia. Horrela, lasaiago jardun dezakete neska-mutikoek", azaldu

### EUSKARA ETA HEZIKETA OINARRI HARTURIK ANTOLATU DUTE ARRASATEKO HAUR PARKEA

dute antolatzaileek. Pilotalekuan, esaterako, 413 haurrek jardun zuten abenduaren 28 eta 29 bitartean.

### Igerilekua ere jolasleku

Garai hauetan, era guztietako ekintzak jartzen dituzte haurren eskura, eta parkeen artean ere badago alderik. Besteak beste, igerilekuan eta kantxan eraikitako parkeak eskaintzen dituzte Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. "Umeei aisialdirako ahalik eta bitarteko gehien eskaintzea da asmoa", azaldu dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako antolatzaileek.

Bestetik, egun kopuruari dagokionez ere bada alderik ibarreko herrien artean. Batzuek egun bat baino gehiagoz luzatzen dute egitasmoa; beste batzuek egun bakarrera mugatzen dute. Hori da Elgetako, Leintz Gatzagako, Antzuolako eta Aramaioko kasua. Horrek, baina, ez du umeen dibertsioa oztopatu. "Gustura ibili dira", diote Antzuolan.

## Langabeziak azken urteetako beherako joerarekin segitzen du

2.603 langaberekin amaitu zen 2017a eskualdean eta %8,56ko langabezia tasa orokorrarekin

**J.I. / L.Z** DEBAGOIENA

2016 urte amaiera ezkerro ia puntu eta erdi jaitsi da langabezia tasa Debagoiengan; %9,90 zen orduan. 2017ko abenduko eta azaroko datuak alderatuta, berriz, langabeziak gora egin du eskualdean. Urte berria hastearrekin egin dituzte ezagun 2017 amaierako datuak.

Urte arteko aldeari dagokionez, langabezia tasak azken hiru urteetako beheranzko joerarekin jarraitzen du Debagoiengan. 2016 amaieratik puntu eta erdi jaitsi da ia. 2015 amaieran %11 izan zen langabezia tasa, eta 2014 amaieran azken urteetako tasa handiena, %12,41.

2017ko abenduko eta azaroko datuak alderatuta, berriz, langabeziak gora egin du Debagoiengan. 44 langabe gehiago zeuden abenduan azaroan baino; %8,42 azaroan, %8,56 abenduan.

Langabeziak behera egin du Antzuolan, Arrasaten, Elgetan, Leintz Gatzagan eta Aramaion. Gora egin du, berriz, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin. Aldaketak ez dira, oro har, handiak izan. Deigarriena, Oñatikoa; 35 langabe gehiagorekin, %5,55etik %6,20ra pasa da langabezia tasa.

### Datuak herriz herri

2017ko abenduan Antzuolak 49 langabe zituen eta %4,41eko langabezia tasa; Aretxabaletak 270 langabe (tasa: %7,86); Arrasatek 1.137 langabe (tasa: %10,89); Bergarak 614 langabe (tasa: %8,50); Elgetak 45 langabe (tasa: %7,80); Eskoriatzak 146 langabe (tasa: %7,19); Leintz Gatzagak 5 langabe (tasa: %3,62); Oñatik 337 langabe (tasa: %6,20); eta Aramaiok 14 langabe (tasa: %1,85).

## Herritarrak eskertu gura izan ditu Gurutze Gorriak

Gurutze Gorriak amaitu du *Haien eskubideak jokoan* egitasmoaren baitan egindako jostailu berrien bilketa, eta, hain zuzen ere, herritarrak eskertu gura izan dituzte euren erantzunagatik. Azaldu duenez, ibarreko 256 haurren –123 familiaren– eskaera asetzeko helburuarekin abiatu zuten bilketa kanpaina. Eta lortu dute hori, Debagoiengan jasotako

jostailu berriei eta donazio zein jostailu-txekeei esker. Hain zuzen ere, 83 jostailu berri jaso dituzte –behar zuten jostailuen %35–, eta gainerakoa erostea ahalbidetu diete donazio eta jostailu-txekeek.

Era berean, kanpainak iraun duen bitartean laguntzen jardun duten boluntarioei ere eskerrak eman dizkiete, euren laguntza "ezinbestekoa" izan dela adieraziz. Eta, ez dituzte ahaztu diruz lagundu duten elkarte eta enpresak.

## Ondarrutarrek hartu dute Lasterbidean-en lekukoa

Lasterbidean Nazio Elkartasun Lasterketaren lekukoa Ondarroan dago jada; hura izango da euskal errepresaliatuen aldeko kirol ekimen antolatzaileen arduraduna. Oñatiarrek abenduaren 16an eraman zuten lekukoa –Lasterbidean-eko zapatila– bertara, Gipuzkoatik Bizkairako muga lasterka zehar katuta.

Horren ostean, prentsaurrekoa egin zuten, ekimenaren 6. edizioa aurkezteko. Bada, aurtengoan, ekainaren 17rako dute hitzordua finkatuta, Ondarroan. Gura duen egun horretan izango du kirolaren bidez aldarri egiteko aukera.

Hasiera batean, beste egun bat zuten zehazturik, baina hitzordua aldatzea erabaki dute. "Ekainaren 10an Gure Esku Dagok ekimen nazionala antolatua du. Beraz, astebete atzeratzea erabaki dugu", diote.

**24ko kantak****MERTXE LASKURAIN**

BERGARA

Sasoi hau heltzen denean, geroz eta gehiago entzuten da Gabonak ez direla gustuko egunak, eta egia da baten bat falta denean hutsunea gehiago igartzen dela, baina niri, bizi guztian 24ko goiza asko gustatu zait; batez ere, umeak kantuan irteten direnean.

Aurten, urtero bezala, atera naiz kalera giro polit hori ez galtzeko, eta sorpresa ederra eramane dut; horregatik, zorionak luzatu nahi dizkiet ume-gurasoen kalejira, kantak, Olentzero-Mari Domingi antolatzen ibili diren gurasoei, ikastolen eta Udaleko ordezkariari, erabat asmatu dutelako.

Alde batetik, guraso eta ume talde handia eta bakarra, eta beste aldetik, Olentzero eta Mari Domingi, beti bezala, atseginak eta umoretsuak; eta, gainera, aurten, nahiz eta

Euskalmetek hego haizea iragarri, Bergaran elurra izan dugu.

Zorionak antolatzen ibili zaretenoi eta parte hartu duzuenoi ere, ohiturak mantenduz egun polita, benetan, pasatu eragin diguzuelako.

**Bergarako Udalaren hizkuntza politika: sare sozialak****AITOR ARANZABAL GALLASTEGI**BERGARAKO EH BILDUKO ZINEGOTZIA  
BERGARA

Badira egun batzuk Bergarako Udala sare sozialetan egiten ari den hizkuntzaren erabilera salatzen ari naizela. Izugarria da zentzu honetan azkenengo bi urteetan eman den atzerapausoa. Zergatik atzerapauso hau Udalaren aldetik hizkuntzaren erabilera normalizatzeko bide egokiak ematen ari zirenean?

Bergara herri euskalduna da eta horren adibide,

Soziolinguistika Klusterrak egindako azkeneko kale neurketen arabera Bergarako euskaldunen indizea, %76koa –azken-aurrekoan %80koa–. Eta ondorioz, Uemaren (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) barnean dagoen udalerri bat gara.

Udaleko irizpideen arabera, euskarari lehentasuna eman behar zaio komunikazioetan, baina nola egin hau sare sozialetan? Argi dago hartutako bidea ez dela egokia. Ezin da guztia ele bitan idatzi, are gutxiago bi hizkuntzak parez pare jarri, euskarari lehentasunik eman gabe.

Bergarako Udalak, hizkuntzaren erabileraren inguruko irizpideez gain, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP 2013-2017) ere badauka. Baina hara non lau urterako plan hau iaz amaitu zela, eta ez da berririk landu 2018-2021 urteetarako, nahiz eta 2017ko aurrekontuetan

horretarako diru partida bat egon.

Bergarako Udal Gobernuari hausnarketa sakon bat eskatzen diot egoera hau bideratzeko, herritar zein eragileekin konpartitua. Eta lan horretan bidelagun izango ditu EH Bildu eta baita ni neu ere.

**Argi ibili, eta burua erabili****MIKEL ARANTZABAL**

EIBAR

Alerta horia, alerta laranja, abisu horia, abisu laranja. Denetarik.

Zoritxarrez, sarri izaten dira mota horretako egoerak gure inguruan.

Euria, haizea, olatu handiak, elurra... kalte handiak sor ditzakete fenomeno atmosferiko horiek, basoetan, errepideetan, herriguneetan, haizeguneetan... eta, zer esanik ez, kostaldean.

Ohartarazi egiten gaituzte kontuz ibiltzeko, hamaika lekutatik, baina, hala eta guztiz ere, ez da nahikoa izaten tragediak saihesteko.

Azkena, asteazkenean bertan, Mutrikun, Ondarbeltzeko hondartzan gertatu zen. Gasteizko bi pertsona hil ziren, olatu handi batek eramanda; 67 eta 65 urtekoak. Argazkiak ateratzera gerturatu omen ziren.

Gainera, kasu horretan, han inguruan zebilen beste pertsona bat sartu zen uretara, haiek salbatzeko asmoz. Hau da, hiru izan zitezkeen hildakoak; eskerrak erreskate taldekoei...

Izan ere, alertak eta halakoak izaten direnean haize bolada eta olatu handiengatik, jende asko berehala joaten da arrisku handia dagoen gunetara. Zertarako? Zer lortzeko?

Izan gaitezen kontziente arriskuez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Debagoieneko GREMIOAK

**ARROZTEGIAK****AZKARATE AROZTEGIA**

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakleak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)**HONDEAKETAK****EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

[e. arrasate@gmail.com](mailto:e. arrasate@gmail.com)**ITURGINTZA****EGIA ITURGINTZA**

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)**URKO MANTENIMIENTO SL**

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

**LEIHOAK****ARGI-PLASTIK**

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

**LOREZAINZA****MAKAI KOOP. ELKARTEA**

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jami nahi baduzu,  
deitu 943 25 05 05 zenbakira.





ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

## Kate motzean eramateko

Erraz imajina nezake non edo nola sortu zen idatziari izenburua ematen dion esatera. Txakur amorratu bati bere jabetzarik baliatuena babesteko kate luzeegia jarriko zion baserritarrak, eta, behar ez zuenari hozka egin ondoren, kaltetuak kate motzagoa eskatu zion. Baina badira kate luzeegiak dituzten beste amorratio batzuk ere.

Elikadurarik gabe ezin bizi gara. Ez dago saihesbiderik, hori da gure beharrik handiena.

Elikagaiak sortzen diren lekuetatik gure sukaldetaraino doan katea luzatzen joan da etengabe azken urteetan, eta bere muturrean dagoen kontsumoa ere etengabe hazi da.

Elikagai behar hori, amorraren amorruez, ingurumenari hozkaka hasi zaio aspaldi.

Ekoizpen maila bermatzeko promesaz, lurrari emandako botika eta ongarrri kimikoak kontratan datozkigu, gure osasuna bera ere kaltetuz.

### ELIKAGAI BEHAR HORI, AMORRUAREN AMORRUZ, INGURUMENARI HOZKAKA HASI ZAIO

Katea bera ere astunegia da dagoeneko, eta katebegi bakoitza ase beharrak ekoizlea ekonomikoki estutu du, ia guztiz itotzeraino.

Hogeita bost urte igaro berri dira 1.500 ikerlarik baino gehiagok *Gizateriari lehen*

*oharra* argitaratu zutenetik; bertan, deia darra egin zuten ingurumenaren suntsipen maila larriari buruz.

2017ko bukaeran, 184 herrialdetako 15.364 sinatzailek *Bigarren ohar* bat argitaratu behar izan dute, hogeita bost urte horietan egoera nola okertu den salatuz.

Gure egungo elikatzeko moduak lan horietan aipatutako arazoetan duten eragina ikaragarria da oso. Globalki gertatzen ari diren baso azalaren murrizketa, arrantzaren kolapsoa, haragi kontsumoaren igoera neurrigabea... elikadura katearen luzatzearen eta, aldi berean, gertuko ekoizpenari uko egitearen fruitu dira.


Elikagaiak, lehen sektorea, bizi ekoizpena, ingurumena... izenak izen, kate motzean disfrutatze txakur eder bat da, baina.

Geroz eta kate motzagoa, geroz eta laztan goxoagoa.

Irakurri aipatutako lan hori, gaztelaraz, helbide honetan: <https://labur.eus/awnAr>.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Txotx irekierak 25 urte, eta hamalau bider kirolariak protagonista

JON TORNER ZABALA

[HTTPS://LABUR.EUS/CMXCP](https://labur.eus/cmxcp)

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Urtarrilaren 15ean egingo da txotx irekiera Astigarragako Gurutzeta sagardotegian. Aurtengoa 25. edizioa du Sagardo Berriaren Egunak, eta Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarra izango da protagonista nagusia. [...]

25 urte beteko ditu ekitaldi sinboliko horrek, eta hamalaugarrenez kirolari batek edango du lehenbiziko tragoa. Zerrenda luzea da Sagardoaren Lurraldearen

webgunean topa dezakeguna: 1995an Jose Mari Bakero futbolaria, 1996an Javier Clemente futbol entrenatzailea, 1997an Julian Retegi pilotaria, 1998an Miguel Indurain eta 2001ean Joane Somarriba txirrindulariak, 2002an Martín Fiz korrikalaria... [...]

Albo batera utzita ia guztiak gizonezkoak direla, kirolari kopuruak eman digu atentzioa. "Ohore" hori merezia dutela ez dugu zalantzan jarriko, baina halere, ez al dira kirolari gehitxo? [...]

Ziur gure herriotan egiten den hamaika ekitaldi/ospakizun gehiago zerrendatuko zenituzketela...

Bai, badakigu ekitaldiak oihartzun handiagoa izango duela pertsona famatuak gonbidatuta, euskal "mortasunaren" ikur direla bai kirola baita sagardoa ere eta bi munduak lotzeak logika izan dezakeela, kirolari bat aukeratzeak teoriam ez duela ukitu politikoko polemikorik, baina... nola esan, maiz "errazenera" jotzen dugula dirudi.

Kirolariak (ezagunak bederen) nahikoa txalo jasotzen dute bestela ere, eta beste eragile batzuen lana aitortzeko modua ere izan daiteke txotx irekierarena. Tradizioari eutsi, baina aurrera egin.

Ez dakit...

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Aurreko denboraldiko lana hobetzea da erronka nagusia"

ASIER GARITANO LEGANES TALDEKO ENTRENATZAILEA

Mireia Bikuña BERGARA

Gabonetako oporren ostean, domekan, 12:00etan, Leganesek Realaren kontra jokatu du. Asier Garitanoren taldea abenduaren 17an hasi zen urte berria prestatzen.

**Hamahirugarren lekuan dago taldea, 21 punturekin. Gustura?**

Bai. Lehen bost hilabeteak onak izan dira. Puntu kopuru polita lortu dugu. Iazkoarekin parekatuta, pauso bat gorago gaude, baina ezin gara erlaxatu. Badakigu nor garen eta non egon gaitezkeen. Iaz baino hobeto gaude, baina helburu berbera dugu: mailari eustea.

**Partidu bat gutxiago jokatu duzue, baina puntu kopuru ona daukazue.**

Bolada ona izan genuen. Bost partidutatik, hiru irabazi eta bi berdindu genituen. Sailkapeneko seigarren lekuan egon ginen. Dena den, Leganes sendo dago, baina beste talde guztiak ere bai. Talde sendoak dituzte. Oso jokalaria onak.



Asier Garitano, Bergarako Agorrosin futbol zelaian, abenduan. MIREIA BIKUÑA

**Baina emaitzek agintzen dute. Begiratu Malagari...**

Hori da futbolaren legea. Emaitzak eta puntuak. Malagak iazko jokalaria gehienak ditu, eta Europarako sailkatzea zuen helburu.

Baina bolada txarrean sartu zen, eta horri buelta ematea oso zaila izaten da.

**Ligan ondo eta Kopan, final-zortzirenetan.**

Liga txapelketa hasi genuenean, Kopan aurrera

egitea zen helburuetako bat. Iaz baino aurrerago heldu gura genuen. Oraingoan, lortu dugu. Ez gaude ohituta astero bi partidu jokatzera, baina oso aberasgarria izango da. Urtarrila luze egingo zaigu. Seguru.

**40 puntu beharko dituzue maila ziurtatzeko?**

Ez dakit. Iaz, 21 puntu lortzeko, 22 jardunaldi behar izan genituen. Aurten, hamalau besterik ez. Horrek esan nahi du, akaso, puntu gehiago beharko direla maila ziurtatzeko. Guk badakigu bigarren itzuliko etxeko puntuak oso garrantzitsuak direla helburua lortzeko bidean.

**Sevillan Berizzo entrenatzailea bota dute, taldea bosgarren lekuan egonda eta Europan lan txukuna egin ez.**

**Futbol arduradunak zoratu egin dira?** Ez dakit, ba. Liga hasieratik hona, zazpi entrenatzaile bota dituzte. Beti gaude emaitzen menpe. Klubetako arduradunek horren arabera hartzen dituzte erabakiak, baina Sevillaren kasua oso bitxia da. Dagokion lekuan dago ligan eta Txapeldunen Ligan aurrera segitzen du... Zerbait gehiago egongo zen erabaki horren atzetik. Entrenatzaileok beti gaude kinka larrian.

## HAU BE BADOGU!

**Alex Txikon, Everest mendira, berriro**



Alpinista bizkaitarra Everest mendiko kanpamentu nagusira heldu zen urtarrilaren 2an. Helburua munduko gailurrik altuena neguan igotzea da, iaz ezin izan baitzuen erronka lortu:

@AlexTxikon: "Behe Kanpalekuan gaude jada, eta amorerik emango ez dudala ziurtatzen dizuet. #TxikonGoesToTheEverest #winter #expedition".

**Gorbeia 'trending topic', bilaketa dela eta**



Itxuraz mendian galdutako Jon Barcena berriztarraren bilaketa dela eta, asteon *trending topic* izan da Estatu mailan Gorbeia mendia. Argazkian ikus daitezkeen moduan, hainbat eta hainbat boluntario mugitu dira Berrizko gaztearen bilaketan parte hartzeko, eta #Gorbea, #Gorbeia eta #BilaketaGorbea traolak ere erabiliaren artean egon dira txiolari euskaldunen artean.

**Facebooken 3.000 jarraitzaile Goienak**

Aste honetan 3.000 jarraitzaileak gainditu ditu Facebookeko *Goiena.eus* orrialdeak. Twitterren, gainera, @goiena kontuak 4.000 jarraitzaile baino gehiago lortu ditu eta Instagramen 800 jarraitzailearen muga gainditu du dagoeneko.

Eskerririk asko, beraz, sare sozial ezberdinetan ere Goiena jarraitzen duzuen guztioi.

## ITURRI ONETIK

**Alex Txikon eta Oñati**

Alex Txikonek beste ahalegin bat egin nahi du oxigeno barik Everestera igotzeko. Kanpamentu nagusia kokatu du eta han dago oñatiar batekin: Urdin Elortzarekin. Kasualitatez egin zuen topo bizkaitarrarekin, abioian, Himalaiara bidean, eta hark gonbita egin zion haiekin joateko. Bestetik, oñatiar batek diseinatu eta egindako jantziak erabiliko ditu lemoaztarrak. 60 gradu zero azpiko tenperaturei aurre egiteko, Carlos Vieira *Kanu-k* Trango World-entzat egindako arropa eta osagarriak erabiliko ditu.

## GORA ETA BEHERA



**Hondakinin gunea sutan eta abere hondakinak**

Gabonetan Bergarako Agirre auzoan izandako sute baten harira, irakurle batek dio hiri hondakinak batzeko guneak su hartu zuela, haize zakarrak lagunduta, eta salatzen du suteak agerian utzi zuela norbaitek basurde baten hondakinak utzi zituela gunean. Txalotu nahi izan du larrialdi zerbitzuak azkar erantzun izana eta Udalak hondakin berriak hurrengo egunerako ordezkatu izana.







Zarugalde kaleko plaza horretan gertatu zela azaldu du erasotuetako batek. XABI GOROSTIDI

## Urteberri eguneko erasotzailea, ingresatuta

Urtarrilaren 2an egin zioten balorazio psikiatrikoa eta ordutik hona Donostiako Ospitale Psikiatrikoan dago. Ertzaintzak urtarrilaren 1ean atxilotu zuen, 09:00 aldera, hainbat pertsona lorezaintzako aitzur batekin erasotu eta zauritu ostean

### Xabi Gorostidi ARRASATE

2018ko lehen egunean, indarke-riazko ezbehar batek bereganatu zuen herritar askoren arreta. 25 urteko gazte arrasatear batek hainbat laguni eraso egin zien lorezaintzako aitzur batekin, horietako batzuei zauriak eraginda.

Ertzaintzak erasotzailea atxilotu zuen, Gipuzkoa etorbidean, autoan zihola. Drogen testa egin zioten, eta positibo eman zuen. Bergarako polizia etxera eramane zuten, ustezko bi delitu egotzita: lesioak eragitea eta errepideko segurtasunaren aurka egitea.

### Ospitale Psikiatrikoan

25 urteko erasotzaileak Bergarako polizia etxean pasa zuen gaua, eta asteartean deklaratu zuen epailearen aurrean. Hark aske uztea erabaki zuen, baina balorazio psikiatriko bat egiteko baldintzapean.

Ertzaintzak GOIENARI konfirmatu dionez, asteartean ber-

tan joan zen gaztea Donostiako Ospitale Psikiatrikora balorazio hori egitera, eta ordutik hona ingresatuta dago bertan.

### Biktimaren kontakizuna

Ertzaintzak atxilotu zuenean, autoa lapurtu behar ziotela argudiatu zuen erasotzaileak, oldarraldia justifikatzeko. Baina erasotua izan zen biktimetako batek teoria hori gezurtatu egin dio GOIENARI.

"Zarugalde kalean azken tragoa hartu ostean etxerantz nindoan, oinez, beste lagun batekin batera. Bidean, nire auzoko lagun bat ikusi nuen autoarekin, eta Ikerreko biribilgunean minutu batzuk barru batuko ninduela esan zidan. Agirretxe harategia

### ERASOTZAILEAK AIPATUTAKO AUTO LAPURRETAREN TEORIA GEZURTATU DU BIKTIMETAKO BATEK

dagoen plazatxoan geundela, bere auto kanpoan zegoen gazte baten albotik pasa eta, hitzik esan gabe, kolpe bat eman zidan buruan aitzurrarekin. Erabat harrিতa geratu nintzen, baina aldentzea lortu nuen. Ez nuen erasotzailea ezertaz ezagutzen, baina, autoa alboan zuela ikusita, matrikulari argazki bat atera nion, ostean erasotzailea identifikatu ahal izateko. Jarreraian, Ikerren zain nuen laguna agertu zen autoarekin, eta ospitalera eramane ninduen, buruan zauria neukala ikusita. Nirekin oinez zetorren beste laguna Akelarreko aldapan gora joan zen ihesi, eta erasotzaileak harrapatu zuenean buruan eta bizkarrean kolpatu zuen".

Lehen erasoaldi haren ondoren, erasotzailea ospitalera joan zen autoarekin. "Hil egingo zaituztet" oihukatzen zebilen. Ospitale barruan babestu ginen, eta jarreraian SOS Deiei abisu eman nien, udaltzainen bulegoa itxita baitzegoen".



MIREN IBABE

## 2017ko azken jaioberria

Ane Aranzabal Inziarte arrasatearra izan da Debagoieneko Ospitalean 2017an jaiotako azken umea. Abenduaren 31n jaio zen, 01:50ean, eta urteko azkena izan da. Urtarrilaren 3an jaiotzekoa zen, baina aurreratu egin zen, eta 3,450 kilo pisatu zuen jaiotakoan. Estibaliz eta Julen gurasoak pozarren ageri dira, Ane esku artean dutela.



MIRARI ALTUBE

## Erakusleiho dotoreena, Gare-koa

Zerkaosteta kalean dagoen Gare loradendak irabazi du santamas jaien barruan antolatutako erakusleiho lehiaketa. Epaimahaia bat etorri da hori hautatzerakoan, eta bigarren eta hirugarren sariak Altuna lurrin-dendari eta Otamendi harategiari eman dizkiote. Irudian, Gare dendako arduraduna, Maria Ubarretxenak eta Juan Ramon Mendietak emandako garaikurrarekin.

### Urtarrilaren 13an Bilbora joateko autobusa Arrasatetik

Sarek deitutako manifestaziora joan nahi dutenek autobusean joateko aukera izango dute, goizez eta arratsaldez. Goizekoa 11:00etan aterako da, Garibaitik, eta izen ematea Basati tabernen egin beharko da. Arratsaldekoa, oster, 15:30ean aterako da eta izena emateko zerrendak Monte, Taupa eta Osorik tabernetan daude, 10 eurotan.

### Mozambiqueko proiektua hizpide Kulturaten

Datorren egubakoitzean, hilaren 12an, Harreman GKEk Mozambiken martxan duen proiektua azalduko du arrasatearren aurrean.

Programa horren arduradun nagusi Beñat Arzadunek gidatuko du saioa eta Txorbela Otxotearen kantuak ere izango dira. Hitzordua Kulturateko areto nagusian da, 19:00etan.



# Herriko aterik zaharrena konpondu egingo dute

Zurgin kantoiko portaleari eusten dion estruktura gero eta hondatuago dagoenez, hura konpontzeko erabakia hartu du Udal Gobernuak. Hori dela eta, Arrasate Zientzia Elkarteok eskari garbia egin dute: "Berreraiki beharrean, zaharberritu dezatela".

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko hiribilduak zituen ateetatik hiru daude zutik gaur egun: Iturriotzekoa, Portaloikoa eta Zurgin kantoikoa. Hiruretan zaharrena Zurgin kantoikoa da, eta hura berritzeko erabakia hartu du Udal Gobernuak.

"Olarteko arkuak higadura arazoak ditu; batez ere, estrukturarari eusten dioten harriek dagokienez. Kareharri margo sarekin eginda dago, eta horietan pitzadurak gero eta handiagoak dira. Baina ez hori bakarrik. Harri eta harri artean dagoen argamasa ere gero eta hondatuago dago, eta jausten ari da gutxika. Segurtasun alorrean arazoak ekarri ditzake horrek, eta helburua da arrisku horiek ahalik eta gehien gutxitzea", azaldu du Jose Angel Barrutiabengoak, Arrasate Zientzia Elkarteoko kideak.

Harri Construcciones y Mamposteria SL enpresa izango da konponketa lanak egiteko arduraduna. Berreskuratze obrak egiten adituak dira, eta, besteak beste, Donostiako Kontxa hondartzako baranda berritu zuten. Lanen kostua 13.200 eurokoa izango da; 15.972, BEZa barne.

Besteak beste, arkuaren goialdean teila berriak jarriko dituzte, estrukturara urik sartu ez



Olarteko portalea Zurgin kantoitik ikusita. XABI GOROSTIDI

dadin. "Orain, ur ugari sartzen da bertatik, eta horrek harrien higadura areagotzen du".

## AZEn eskariak

Udal Gobernuak Arrasate Zientzia Elkartearekin elkarlanean egin nahi ditu konponketa lanak, eta eurekin harremanetan izan da birgaitzearen inguruko irizpideak zehazteko.

Elkarteko kideek eskari garbia egin dute, lehenik eta behin: berreraiki beharrean, zaharberritu dezatela. "Gure ondare historikoaren parte garrantzitsu

bat da, eta ahalik eta hoberen mantendu nahi dugu. Beste bi ateak, beheko atea (Portaloia) eta Iturriotzekoa, berreraiki egin ziren XVIII. mendean, baina hau XIII. mendean eraiki zen bezala kontserbatu da".

Ez dute zementua bezalako elementu modernorik erabiltzerik nahi, eta bere garaian erabiltako argamasaren antzerako materialekin birgaitzea eskatu dute. Bestalde, arkuaren bi aldeetan dauden zementuzko zatiak kentzea ere eskatu dute, harri originalak bistaratzeko.

## 120 lagun inguru arituko dira gaur Errege magoen desfilean

Arratsalderako eguraldi txarra iragarri duten arren, hiru Errege magoek gozokiak eta ilusioa banatuko dituzte

### X.G. ARRASATE

Gaur iluntzean lan karga handia izango dute Errege magoek, Arrasateko etxeetan opariak banatzen arituko direlako. Baina hori egin aurretik, urteroko desfilean izango dira, haurren ilusioa elikatzeko.

Desfile aurretik, ordea, 17:30ean, Iturbide egoitzara gerturatuko dira hiru Erregeak, lehen opariak banatzeko asmoz. 19:00etan abiatuko da desfilea, Zerkaosteta kaletik, eta Garibai etorbidea, Maalako biribilgunea, Maalako Errabala, Portaloia eta Erdiko kalea zeharkatu ondoren, Herriko Plazara helduko da, 19:30 inguruan.

Erromatarrek zabalduko dute bidea eta haien atzetik joango dira neska eta mutiko argi emaileak. Haien ostean, Arrasate Musikaleko tronpeta joleak eta Sambamañako danbor joleak

joango dira, desfileari ukitu musikala emateko. Eta haien atzetik joango dira eguneko protagonista nagusiak izango diren Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Alboan izango dituzte laguntzaileak, argi emaileak eta baita haurren korukoak ere.

Desfilearen atzealdean gurdia joango da eta haren gainean, aldiz, ekialdeko fantasia. Laguntzaileak gozokiak gurditik barra-barra banatzen egongo dira, haur eta gaztetxoek azukre desira asetzeko.

### 120 parte hartzaile inguru

Hiru Erregeez gain, hainbat parte hartzaile izango dira aurtengo desfilean: lau erromatar guardian, 36 argi emaile, 30 zuziekin, hiru zaldun, bederatzi zerbitzari, 30 abeslari, 25 musikari eta gurdian joango diren zortzi lagunak, besteak beste.



SANTAMAS KOMISIÑUA

## Txerri zozketaren irabazlea

Santamas egunean Gabonetako loteriaren zozketa egiten da, baina, horretaz gain, badago sari potolo bat irabazteko aukera. Komisiñoko kideak jo eta su aritzen dira egun osoan zehar txerri zozketarako txartelak saltzen, eta 20:00etan ematen dute irabazlearen berri, Herriko Plazan. Irudian, Rosana irabazlea, 5.877 zenbaki saritua eskuetan duela.

## Izen eta istorio ugari dituen atea

Zurgin kantoiarri nortasuna ematen dion atea hainbat izendapen jaso izan ditu sortu zenetik hona. Bere garaian, Arabatik eta Bizkaitik zetozenentzako sarrera izaten zen, eta hortik datozkio izendapenetako batzuk.

1540an dago jasota arkuaren lehenengo izendapena, eta orduan, Arabako portalea edo Aramaioko portalea izenez

izendatzen zuten. Baina ostean, beste hainbat izen hartu ditu; Zarugaldeko portalea, Kondekuako portalea, Olarteko portalea, Krimenaren portalea, Zurgin kantoiko portalea, eta, azkenik, Arbolapetako portalea".

Horien guztien artean, AZEko kideek argi daukate zein litzatekeen etorkizunean erabiltzeko aproposena. "Izen horietako asko modernoegiak

dira, eta ez dute ondo jasotzen arkua Arrasaterentzat izan dena. Arabako portalea da, berez, izendapen zaharrena, baina, gure ustez, Olarteko portalea da izenik egokiena, atearen beste aldean zegoen Olarte auzoari eta bertako burdinolei erreferentzia egiten dielako.

Krimenaren portalea izena ere jaso izan du, 1816an bertan erail baitzuten Santiago Aranguren, Monterongo Kondea eta orduko alkatea zena.

# Berriro ere Iturripeko zorua protagonista

Eguaztenean bertan behera utzi behar izan zuten Lacturale Araski eta IDK-Gipuzkoa taldeen arteko partidua, hezetasun arazoengatik; lehen bi laurdenak jokatu zituzten, baina inork minik hartu aurretik hartu zuten erabakia

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Berriro ere Iturripeko zorua da albiste, oraingoan ere txarrerako. Ointxe! klubak ez ditu 50. urteurreneko ospakizun ekitaldiak gura moduan hasi, zer eta hezetasun arazoengatik. Izan ere, eguazteneko hitzordua bertan behera utzi behar izan zuten, Iturripeko harmailak jendez beteta zeudela. Eta, hala ere, ondo hartutako erabakia izan zen, jokalariek min hartzeko arriskua zuten eta –bihar bertan Araskik Leonen jokatu du eta IDK Gipuzkoak, Zamoran–.

**Arazoa ez da berria**

Bada, zale debagoiendarrak eta Gipuzkoatik eta Gasteiztik etorritako jarraitzaileak saskibaloi gosez geratu ziren, hasierako bi laurdenak baino ez zituzten-eta jokatu (29-24). Baina arazoa ez da berria. Bai Antoñako kantxan –Musakolan– eta baita Iturripen ere hezetasun arazoak aspaldikoak dira –Iturripen itoginak ere egon



Araskiko eta IDK Gipuzkoako jokalaria, eguaztenean. M.BIKUNA

izan dira; horiek konpontzeko zenbait lan egin izan ditu Udalak–.

**Telebistan jasota**

2014ko urtarrilaren 28an, esaterako, Goiena telebistak *Harmailatik* saioan erakutsi zuen zelan

ibili ziren MUko saskibaloi jokalariai –eta kontrarioak– hankaz gora ligako partidu batean. Orduko udal ordezkari bideoak ez zien graziarik egin, baina arazoak hor jarraitzen du, nahiz eta oso tarteka gertatzen den.

## Hirugarren sailkatuarekin berdintzeko aukera du Mondrak

Hernani izango dute aurkari domekan, 16:30ean, eta, irabaziz gero, 30 puntu izango lituzkete bi taldeek

**X.G.** ARRASATE

Mondrak sentsazio onekin amaitu zuen urtea, UDAREN aurka partidu txukuna eginda, eta denboraldi hasierako lan txukunari jarraipena emateko asmoz hasi nahi du 2018a.

Urteko lehen partidua etxean jokatu du, Hernaniren aurka, domekan, 16:30ean, Mojategin, eta Jorge Davilak eta Iker Romerok ia jokalaria guztiak izango dituzte euren zerbitzura. "Gabonak izanda, birusen bat edo beste izan dute jokalariek, baina, hasiera batean, jokalaria

guztiak ditugu jokatzen moduan, lesionatu bat izan ezik", azaldu du Davilak.

**Gabonetako geldialdia**

UDAREN aurka jokatu ostean, atsedena txiki bat izan zuten Mondrako jokalariek.

"Astebeteko geldialdia egin genuen ligako azken partiduaren ostean. Baina, urtea amaitu baino lehen, entrenamenduak berreskuratu ditugu, 2018ko lehen partidura ahalik eta saioen hartzeko asmoz", azaldu du Davilak.

**Ligako oilar bat aurkari**

Sailkapeneko postu gorenetara kateatzen hasteko aukera polita izango da biharkoa Mondrarentzat. Hirugarren sailkatua den Hernani izango dute aurrez aurre, eta, irabaztea lortuz gero, berdinduta geratuko lirateke bi taldeak, 30 punturekin. "Aurrealdeko trena hartzeko balioko liguke garaipenak. Denboraldi erdialdera gerturatzeko ari gara, eta aurrealdean mantentzea da lortu nahi duguna".


Aurkaria ondo aztertzen lanak egiteko ohitura dute Jorge Davilak eta Iker Romerok, eta zera nabarmendu dute Hernaniri buruz: "Iazko bloke antzerakoa mantentzen dute, ez baitute aldatu askorik egin. Orokorrean, baloia izatea gustatzen zaion taldea da, eta jokoan agintzen ahaleginduko dira".

## Balorazioak:



**GORKA ZURUTUZA** OINTXE!-KO KIROL ZUZENDARIA

"Hezetasun handia zegoen kantxan eta zorua oso labainkor zegoen. Hala, inork min hartu aurretik, jokalarien, taldeko ordezkarien eta Ointxe!-koen artean hartu dugun erabakia izan da bertan behera uztea partidua. Pena da, kanpotik jende asko etorri da-eta norgehiagoka ikustera".



**ANDER GARAI** ARRASATEKO UDALEKO KIROL ZINEGOTZIA

"Egia da Iturripeko arazo handiak eman dituela azken urteotan, eraikin zaharra da, baina halako hezetasun handia ez dugu lehenago ezagutu. 2018rako aurreikusten dugu zorua aldatzea, baina ikusi egin behar dugu gaurko arazoa gauza puntual bat izan den edo gehiagotan gerta daitekeen".

## Liderraren bisita zapatuan

Urteko azken partiduan etxetik kanpo garaipen garrantzitsua lortu zuen MUK, eta horrek ematen dituen bibrazio positiboekin hartuko dute zapatuan EBako liderra den Cantabria taldearen bisita, 18:30ean. "Aurten, fitxaketa handiak egin dituzte, jokalaria amerikarrak ere tartean, eta zaila izango da horiek gelditzea", azaldu du Iñaki Ogarak, MUKo prestatzaile berriak.

Gabonetan atsedenerako tarte gutxi izan dute Ogararen jokalariek. "Astebeteko edo bi asteko geldialdiak egiteak asko eragin dezake kirolari batengan. Egunerokotasuneko lan erritmoa apurtzea ona izan daiteke, eta jokalariek eskertu egiten dute. Gure kasuan, atsedena gutxi hartu arren, lan dinamika aldatu egin dugu, eta beste era bateko lan-saioak egin ditugu".



XAKE ELKARTEA

## Arrasate Hiriko txapela, Letoniara

Abenduaren 26a eta 30a bitartean jokatu da, Arrasate-Arlutz Xake Elkartearen, Arrasate Hiria nazioarteko xake txapelketaren hamazazpigarren edizioa. 28 parte hartzaile izan dira eta garaipena Letoniako Ilmars Starostits maisu handiarentzat izan da. Lehen debagoiendarra Asier Etxagibel arrasatearra izan da, seigarren postua eskuratuta.



# "Harmonia ikasteak mundu bat zabaldu digu"

**CRISTIAN COELLO ETA GORKA ARANBARRI** KADENA PERPETUA TALDEKO KIDEAK Punk doinuak jotzen zituztela bataiatu zuten taldea; ondoren, hard rockerantz jo zuten; eta egun, bluesa jotzen dute, gehienbat. Bateria jole baten bila dabiltza

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Kadena Perpetua da arrasatear belaunaldi gazteen artean sortu den azken taldeetako bat. RIP, Eskorbuto eta Cicatriz taldeekin egin zuten jaunartze musikala, baina handik gutxira estilo konplexu eta mamitsuagoek erakrri zituzten. Musika zainetan sartuta daramatela argi dago, eta horren adierazle da gazte-txeko lokalean rock eta blues doinuak lantzen ordu mordoa ematen dituztela.

**Nolatan erabaki zenuten musika talde bat sortzea?**

15 urterekin. Txikitatik aritu gara elkarrekin eta ondo ezagutzen dugu elkar. Garai hartan, punk talde mitikoak entzuten genituen eta asko aritzen ginen patinetarekin. Patinatzen ari ginen egun batean, taldea sortzea erabaki genuen, eta gazte txokoa entseatzeko hasi ginen. Repelencia taldekoek bertan jotzen zuten, eta Pottokok eta Itsasok erraztasunak eman zizkiguten. Hasieran, Cristian bateria-jotzailea zen, ni baxu-jotzailea eta hirugarren lagun bat gitarrista.

**Nolatan pasa zinen bateriatik sei soketara?**

Egun batean, gitarra jotzen nuela amestu nuen, eta amets horri heldu nion. Txirula dendara joan nintzen, Ephone Les Paul hau eskuetan hartu eta Eskorbutoaren *Cuidado* abestia jo nuen, apenas jotzen nekien arren. Han hasi zen nire ibilbidea gitarrarekin, eta lau urte hauetan milaka ordu dedikatu dizkiot.

**Nolakoak izan da hastapenetatik gaur egunera arteko bidea?**

Urte bat egin genuen gazte txokoa entseatzeko, eta, ostean, gaztetxeko lokalean sartzeko aukera izan genuen. Horrek sekulako bultzada eman zion taldeari, eta, egia esan, garen guztia zor diegu lau pareta hauei. Lehen etapa hartan, Repelencia taldeko gitarrista aritu zen bateria jotzen, eta lau kontzertu



Cristian Coello eta Gorka Aranbarri, Kadena Perpetua taldeko bi piezak. XABI GOROSTIDI

## "TRISTEA DA JENDE GAZTEA PUNK ETA OI! DOINUETATIK HARAGO EZ JOATEA"

eman genituen; Pipol tabernan, San Andresko jaietan, eta baita Huescan ere. Ostean, Aretxabaleto beste bateria-jotzaile bat sartu zen taldean, baina bazeukan alde aurretik beste talde bat. Bi taldeetan aldi berean egotea zaila egin zitzaion, eta utzi egin gintuen. Izan dugun azken bateria-jotzailea Rombos Negros taldekoa izan da. Baina ilusio, dedikazio eta gogo aldetik, ez zegoen gure maila berean, eta, duela lau hilabete, bateria-jotzaile gabe ari gara. Blues-rocka gustuko duen bateria-jotzailearen batek hau irakurriz gero, jakin dezala gu garela berak behar duen taldea.

**Baina bateria-jotzaile gabe gertzea ez da oztopo izan taldeak aurrera egiteko, ezta?**

Biok izan gara hasieratik taldeari tiraka aritu garenak, eta horrek ez gaitu ezertarako gel-

diarazi. Lokalera etortzen jarraitzen dugu, eta biok hemen gaudenean txispa bakarrik pizten da.

**Nola antolatzen zarete abestiak konposatzeko?**

Letra gehienak Cristianek idazten ditu, eta musika atala bien artean egiten dugu. Ideia batetik abiatzen gara, eta biok egiten dizkiogu gure ekarpenak. Gaur egun, Joe Bonamassa, Gary Moore eta Rory Gallagher bezalako *blueseroek* txoratzen gaituzte; beraz, lau akorde eta punteatze bat egiteak ez gaitu asetzen. Olatz musika akademian hasi ginen biok, eta, azkenaldian, harmonia ikasten hasi gara. Abestien logika ulertzen haste horrek aukerez betetako mundu bat zabaldu digu.

**Orain, 20 urte dituzue. Nola ikusten duzue musika panorama gazteen artean?**

Triste da jende gaztea punk eta oi! doinuetatik harago ez joatea. Gu punkarekin hasi ginen, baina urteak dira ez dugula musika hori entzuten. Eboluzio bat izan dugu, eta zoragarria izan da guretzat, baina gazte asko ez dira Arkada Sozialetik aurrera ikusteko gai.



Lehiaketako argazki irabazlea, Igor Altunaren *Txoria*. ARTGAZKI ELKARTEA

## Ikusgai dago 'Udazkena Euskal Herrian' argazki lehiaketa

30 eurotan erosi ahalko dira argazkiak, eta batutako dirua Aspanogi elkarteari laguntzera bideratuko da

**Xabi Perez** ARRASATE

Arrasateko Artgazki elkartearen 3. *Udazkena Euskal Herrian* erakusketa ikusgai dago Arrasateko hainbat denda eta tabernatan urtarrilaren amaierara bitartean.

Artgazki elkarteak sortutako lehiaketaren harira sortu zen benefizentziako erakusketa hori. Udazkeneko argazki lehiaketa horren 3. edizioan, 200 argazki inguru aurkeztu dira, eta, aukeraketa prozesu baten ostean, horietako 45 argazki hautatu ditu epaimahaiak erakusketarako.

Parte hartzaile guztien artean, hauek izan dira irabazleak: lehen saria Igor Altunak eraman du, bigarrena Iban Yanizek eta hirugarrena, berriz, Iñigo San Vicentek.

Erakusketaz gozatu nahi dutenek Arrasateko hainbat komertzioetan ikusteko aukera

izango dute: Kajoi, Itzala, Zuk Nahi eta Ezkiña tabernetan, Eya etxetresna elektrikoaren denda, Uribesalgo aseguru etxearen egoitzan eta Udalaiz Medikuntza Zentroan.

**Argazkiak erosteko aukera**

Erakusketako 45 argazkietako bat etxera eraman nahi izanez gero, 30 euroko prezioan erosteko aukera izango da, alde aurretik 10 euro aurreratuta. Tabernetan eta komertzioetan erakutsi ostean, erakusketa osatzen duten 45 lanak ikusgai egongo dira Kulturaten, otsailaren 2tik 17ra. Egundorretan sari banaketa egin ostean, gordetako argazkiak ordaindu eta etxera eraman ahal izango dituzte bezeroek. Batzen duten dirua Aspanogi elkarteari bideratuko zaio, Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarteari, hain zuzen.

## BIODANTZA

2018an errealitate berria sortzen, zero bitxi-mugimenduen bidez.



**BERGARA**

- Astolohenetan: 18:30etik 20:30era
- Mariaren Lagundia ikastolan, Mentxu Arjenilla 626 66 12 92

**ARRASATE**

- Sakontze taldea, Asteazkenetan 19:30etik 21:30era
- Arrasate Yoga Elkartearen, Rakel Ampudia 679 44 12 29

**ELORRIO**

- Astoartean 18:30etatik 20:30etara
- Txinbiri ikastolan, Mentxu Arjenilla 626 66 12 92

**Etorri eta probatu doan!**

[www.biodanzabai.com](http://www.biodanzabai.com)



Hainbat erabiltzaile gimnasioan. MIRARI ALTUBE

## 3.053 abonaturekin itxi du urtea kiroldegiak

Irailean bost urte bete zituen Ibarra kiroldegiak sekula ez du halako kopururik izan; jardueretako erabiltzaile kopuruak ere gora egin du: %40, hain zuzen ere. Eta, urte berriarekin, ordutegi zabalagoa eskaintzen hasi dira, 07:00etan zabaldua

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Azaroaren 20an gainditu zuen 3.000ko muga abonatu kopuruari dagokionez Ibarra kiroldegiak, eta ordutik hona ere gora egin du; 3.053rekin bukatu du 2017a. "Inoiz izan dugun kopururik handiena da, eta, portzentajeari begiratuta, iaiztik %10,3 egin dugu gora. Hortaz, oso datu onak

dira", adierazi du Asier Mujikak, Udaleko Kirol teknikariak, pozik. Azken hiru urteetan gora eta gora egin dute kiroldegiko datuek: 2014-2015 denboraldian %19 gora; 2015-2016an, %9; eta azken honetan, 2016-2017an, %10,3. "Noiz arte izango den hori? Ez dakigu, hala den bitartean, gu pozik gabilta".

**Jarduerak gora, sarrerak gora**

Kirol jardueren erabiltzaile kopuruak ere gora egin du. "Irailetik hona izugarritzko igoera izan da; iaizko datuekin alderatuta, %40 erabiltzaile gehiago ditugu", dio Mujikak, harrিতuta, eta bi datu eman gura izan ditu: batetik, erabiltzaile kopuru goren: 662 lagun, azaroan. Eta

bestetik, alderaketa: 2012ko abenduan 352 lagun zebiltzan jardueretan eta 2017an, 646. "Abonatu kopurua eta jardueretako erabiltzaile kopurua oso lotuta daudela uste dugu". Athlonen ardurapean daude jarduerak zerbitzua eta harrera, eta erabiltzaileak gustura daudela dio Mujikak: "Balorazioa positiboa da".

Datu ekonomikoak ere onak direla jakinarazi du. "Diru sarreretan eragina izan dute kopuru horiek; %6-7 egin dute gora iaiztik hona. Dena den, gastuekin alderatu behar dira sarrerak, eta oraindik guztiz itxi barik daude kontuak, hainbat faktura daudelako ordaintzeko. Hortaz, aurrerago jakingo dugu autofinantzaketa maila zenbatekoa izan den 2017an. Orain dela urtebete, %80tik gora bukatu genuen, eta aurten ere hor ibilikoa gara". Otsailean haizeteak eragindako kalteak ere kontuan hartu beharrekoak direla gogorarazi du: "Astebete itxi behar izan genuen. Bestela, datuak are hobek izango ziren".

Bukatu berri den urtean, gainera, 2016an baino 218 ordu gehiago izan dute zabalik kiroldegiak. "Hainbat proba egin genituen ordutegiarekin: domeka arratsaldeak zabalik, udako aste bukaerak intentsiboak... Eta 2018ari begira beste 97 ordu gehiago zabalik izatea erabaki dugu; hortaz, orain dela bi urte baino 315 ordu gehiago izango dira guztira. Hori guztia, herri-

tarrei zerbitzu zabalagoa emateko helburuarekin".

**Urte berriarekin nobedadeak**

Urte berriarekin batera ordutegi berria du Ibarra: 07:00etan zabalduko dute urte osoan. Horrek dakarren gainkostua estaltzeko %2,5 igo dituzte tasak, hala erabaki zuelako udalbatzak. Horrekin batera, beste aldaketa bat ere egingo dute: bigarren jarduerak bat hartuz gero, osorik ordaindu beharko da, eta ez orain arte moduan, erdia. "Kiroldegi garesti fama izan du gureak, baina, jardueretan izena emanez gero, eskualdeko prezio merkeenak ditugu; kontuan hartu zerbitzu guztiak sartzen direla -spagunea, gimnasioa...-".

Bost urte pasa osteko hausnarketa egin du Mujikak: "Erditze gogorraren ondoren, datuek euren adierazten dute zein izan den kiroldegiaren bilakaera. Behin zorra ordainduta, hiru edo lau urte barru, zerbitzu-kalitate handiko instalazioa izango du Aretxabaleta". Eta gaineratu du: "Etekinak lortzea posible izango litzateke, baina helburua beti izan da zerbitzuak handitzea erabiltzailearen mesedetan".

**IAZ 218 ORDU GEHIAGO IZAN ZEN ZABALIK ETA AURTEN BESTE 97 ORDU GEHIAGO EGONGO DA**

## Basotxoko bazkideak hiru ile apaindegitarra joan daitezke

Erretiratuen egoitzan ez dute zerbitzurik emango eta hango prezioak izango dituzte herriko hirutan

**M.A.** ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak zuzendaritzako kideek jakinarazi dute ile apaindegi zerbitzurik ez dela emango egoitzan bertan. Erabiltzaileak umezurtz ez uzteko, baina, herriko hainbat ile apaindegitarra jo dute laguntza eske, eta hiruk eman diete baiezkua.

**Txanda hartzeko deitu**

Zerbitzua emango duten ile apaindegiak honako hauek dira: Divina (Murubide plaza, 4; telefonoa: 722 27 39 24); Irudi (Erre-

kabarren kalea, 20; telefonoa: 943-79 80 90); eta Ana ile apaindegia (Bainetxe kalea, 10; telefonoa: 617 95 08 67).

Txanda hartzeko, aurrez deitu beharko dute horietara, eta han zehaztuko diete zein egunetan pasatu ahal izango diren. "Basotxoko ile apaindegian zizutzen prezioak errespetatuko dituzte hiruretan", jakinarazi du zuzendaritza batzordeko kide Tere Artanok, eta gaineratu: "Hori bai, Basotxoko txartela eramatea ezinbestekoa izango da; hortaz, gogoratu horrekin!".



Erretiratu bat Basotxoko eraikinean sartzen. M.A.

**Podologia zerbitzua**

Bestetik, podologia zerbitzua ere abian dago, eta dagoeneko gertatu dute urte osorako egutegia. Done Larrea aretxabale-tarrak jarraituko die zerbitzua ematen Basotxoko bazkideei.

Zuzendaritzako kideek jakinarazi dute 2018ko hilabete guztietako zerbitzu-egunak dituztela zehaztuta egitarauan, eta interesa dutenek elkartearen egoitzan jaso ahal izango dute-la orri hori.

## Astro-argazkien erakusketa urtarrilean Arkupen

Astroen argazkiekin osatutako erakusketa izango da astelehenetik aurrera Arkupeko aretoan; hain zuzen, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik. "Astronomoekin batera, espazioan eta denboran zehar bidaiatuko dugu, astro-argazkien bitartez. Gure Eguzki Sistematik hasiko gara, astroak jaio eta hiltzen diren nebulosan sartu, eta, azkenik, Esne Bidearen antza duten urrutiko galaxietan bukatuko dugu", adierazi dute Aranzadiko kideek.

44 astro-argazki izango dira eta bederatzi argibide panel, urtarrila bukatu artean; hona ordutegia: astelehenetik egubakoitzera 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 eta zapatuetan 11:00-13:00.



# 'Prest gaude' esanaz Bilborako dei egin dute

"Giza eskubideak bermatu, konponbidean aurrera egin eta bakea lortzeko prest" daudela adierazi dute hainbat aretxabaletarrek, Sarek urtarrilaren 13rako deitutako manifestazioarekin bat eginez; hiru autobus antolatu dituzte hara joateko

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Azken urteetan lez, urtea hasiarekin batera manifestazioa egingo dute Bilbon, Sarek deituta. Urtarrilaren 13an izango da aurten; horren berri eman eta harako dei egin zuten hainbat aretxabaletarrek eguaztenez: "Urtero errepikatzen den zita bilakatu da, nahiz eta urtero azkena izan dadin nahi dugun. Egoera aldatzen ez den bitartean, ordea, zita errepikatzen jarraituko dugu, herri bezala preso eta iheslarien auziaren irtenbiderako urratsak egiteko prest gaudela adierazteko", zioen Haritz Oiangurennek elkartutako guztien izenean.



Urtarrilaren 13ko manifestaziorako dei egiten hainbat herritar. MIRARI ALTUBE

## Motxiladun umeak gogoan

Frantziako eta Espainiako estatuek "salbuespen legedia" mantentzen dutela adierazi zuten: "Gizarte zibilaren aktibazioari esker lortu zen armagabetzea gauzatzea, eta gizarte zibilaren aktibazioarekin lortu behar dugu preso eta iheslarien aferari irtenbidea ematea. Bide horretan kokatzen da abenduaren 9an Parisen elkartzea, eta bide horretan ere urtarrilaren 13an Bilboko kaleak betetzea". Giza eskubideen defentsak eta konponbidearen eta bakearen baitan urratsak egiteko nahiak batu dituztela adierazi zuten: "Gehiegi luzatu den sufrimenduzko egoera hau amaitzeko prest gaude, hori erakutsiko dugu".

Egun osoko deia egin dute, gainera, urtarrilaren 13rako: "Egun osoko deialdiaren atzean dago izatez gogorra den gai horren aurrean batzen den indarra, elkartasuna, prestutasuna eta ilusioa erakutsi nahia", zioen Oiangurennek. Eta, bereziki, motxiladun umeak izan zituzten gogoan: "Aurten, gai hau lantzen hasi gara, umeek bizi duten egoera gordina itzalean egotetik argitara atera nahi izan dugulako".

## Hiru autobus Aretxabaletatik

Hala, *Prest gaude* leloarekin bat egitera animatu zituzten aretxabaletarrak. Sarek bi autobus antolatu ditu: bata 11:15ean irtengo da eta bestea, 15:15ean; biak manifestazio ostean itzuli-

ko dira. Ernaik ere antolatu du beste autobus bat; hori 12:00etan irtengo da eta goizaldeko hiru-urtean itzuliko da. Edozeinetan izena emateko epea zabalik dago, Urbaltzen; azken eguna urtarrilaren 10a da.



Urteko azken egunean ere gogoan izan zituzten presoak. M.A.

## Presoak gogoan Gabon zaharretan

Azken urteetan ohitura den legez, urteko azken egunean ere hainbat herritarrek izan zituzten gogoan presoak, eta *Prest gaude* ekimenarekin bat egin. Elkarretaratzea egin zuten Durana kalean eta *Hator*, *hator* kantuan bukatu zuten ekitaldia.



Karramarro bi dantzan iazko desfilean. IMANOL SORIANO

## Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du Udalak

Mozorroren festa berotzen hasi dira Karnabalen Lagunak eta Udala; datorren astetik erabilgarri egongo da lokala

**M.A.** ARETXABALETA

Hilabete pasatxo geratzen da Aratusteetarako –otsailaren 11 da Aratuste domeka– eta Udala zein Karnabalen Lagunak dagoeneko hasi dira gertatze lanetan.

Kultura Sailak kartel lehiaketa deitu du, beste behin. Edozeinek parte hartu ahal izango du eta teknika libre izango da. Honako testu hau jarri beharko da kartelean: *Aratusteak, Aretxabaleta 2018*. Formatu digitalean aurkeztu ahal izango da eta paperean, berriz, DIN-A3 neurria izan beharko du.

### 200 euroko saria

Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 15a da, astelehena; Arkupe kultura etxera eroan behar dira. Epaimahaiak hilaren 18an emango du sarituaren berri, eta irabazleak 200 euro jasoko ditu. Epaimahai hori osatuko dute Kultura batzordeko

kideek eta herriko hainbat lagunek. Kultura batzordeak egoki iritzi gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa jarriko dute, gero, Arkupen.

### Mozorroak gertatzeko lokala

Mozorroa gertatu gura dutenek aurten ere izango dute horretarako leku egokia. Industriadan, Basabe jatetxearen atzeko partean dagoen lokala erabiliko dutela iragarri zuen Txapel Txinek orain dela egun batzuk, eta Karnabalen Lagunak taldekoek berretsi. "Goiz datoz aurten Aratusteak, eta lehenbailehen hasi gertatzen!", diote.

Hain zuzen ere, gaur, urtarrilak 5, dute bilera Udaleko Kultura Sailekoek eta Karnabalen Lagunak lokalaren erabilera eta beste hainbat kontu zehazteko. Eta, ondo bidean, datorren astetik aurrera erabilgarri egongo da hori.

## 'Wonder' eta 'Coco' filmak daude aste bukaeran Arkupen

Helduek Stephen Chboskyk zuzendutako *Wonder* (AEB, 2017, 113 minutu) filma izango dute bihar, zapatua (19:30 eta 22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeei, ostera, *Coco* marrazki bizidunen filma (AEB, 2017, 109 minutu) eskainiko die hiru egunetan: zapatuan, domekan eta urtarrilaren 14an (17:00), hain zuzen ere.

## 'Eolo' antzezlanaren Zirikak Zirkusekin urtarrilaren 14an

Herriko umeek ondo baino hobeto ezagutzen duten Zirikak Zirkus taldeak *Eolo* lana ekarriko die oraingoan Arkupeko oholtzara urtarrilaren 14an, domeka, (12:00). *Eolo* izeneko pertsonaia abentura berrien bila joango da hegan, baina hegazkinaren motorra hondatu eta irudimena jarri beharko du martxan.





Neska-mutikoak eskulanetan buru-belarri Gabonetako parkean. MIRARI ALTUBE



Erretiratuak Gabon kantuan. M.A.



Olentzero eta Mari Domingi umeekin. M.A.



Aintzane Aizpurua, erakusleihu lehiaketaren sari nagusia jasotzen. E. AZURMENDI



Umeak igerilekuan jolasean. A. EZKIBEL

# Asteburuan amaituko dira ekintzaz betetako egunak

Gaur, urtarrilak 5, Errege magoek egingo duten desfilearekin bukatutzat emango dituzte herritarrek Gabonak. Ekitaldiz betetako ia bi aste izan dira: kontzertuak, antzerkia, lehiaketak eta, bereziki, umeendako antolatutako kontuak

## Mirari Altube ARETXABALETA

Abenduaren 24an hasi eta urtarriaren 6a bitartean zer ikusi eta zer egin asko izan da herrian. Neska-mutikoendako antolatu dituzte asko, baina helduendako ere bai. Gaur, egubakoitza, Errege magoak iritsiko dira Gabonei agur esateko; urtero lez, 18:30ean irtengo dira Ibarra kiroldegitik musika eskolako ikasleen eta

herriko gurasoen laguntzarekin, eta Herriko Plazan geldialditxoak egin ostean egingo dute alde.

## Opor egunetarako jolasak

Kaleetan kantuan hasi zituzten Gabonak umeek eta erretiratuak, eta Mari Domingi, Olentzero eta Bizarzuri iritsi ziren gero, umeen musuak eta gutunak jasotzera. Gabon jaiok girotzeko apaindu-

tako erakusleihu onena Lie lurindegia zela erabaki zuten epaimahaiko kideek eta esaldirik onenaren saria Kilima haurdendari eman zioten.

Opor egunetan ez aspertzeko, osterara, gura beste kontu izan dituzte neska-mutikoek: patinaje ikastaroa, puzgarriak igerilekuan eta Gabonetako parkea jokoekin gainezka.



Gabonetako txapelketa jokatuako pilotariak Iturrigorri. UDA

## Gogotsu jokatu dute Gabonetako Kopa herriko pilotariak

Ager Lanzos infantil mailako eskuz binakako txapeliduna izan da Eibarko Mikel Caminarekin bikotea osatuta

## M.A. ARETXABALETA

Opor egunetan ere ez dute atse-denik hartzeko unerik izan herriko pilotariak, Gabonetako Kopa jokatu dute-eta askok. Abenduaren 24an hasita, hainbat partidu izan ziren Iturrigorri pilotalekuan, eta finalak abenduaren 31n, Antzuolan.

Hainbat mailatan banatuta herriko 46 pilotari elkartu ziren lehen partiduetan, eta, galdu edo irabazi, guztiak izan ziren txapelidunak. Jon Etxeberria entrenatzailea "pozik" azaldu da pilotaleku inguruan sortutako giroarekin.

## Bi herritar Antzuolako finaletan

Benjamin, alebin eta infantil mailetako sei final jokatu zituzten Antzuolan, eta bi aretxabaletar izan ziren horietan. Infantil mailan, Ager Lanzosek Eibarko Mikel Caminarekin osatu zuen bikotea, eta Aramaiokoa -Danel Herrarte eta Markel Arriolabengoa- hartu zuten mendean, 18-7.

Alebin mailan, osterara, haren anaia Danel Lanzosek Mikel Alonsorekin osatu zuen bikotea eta galdu egin zuen Oñatikoaren aurka -Manex Juaristi eta Manex Madinagoitia-, 9-16.



Danel Lanzos, erdian, eta gainerako irabazleak inguruan. UDA

## Danel Lanzos, alebinetan txapelidun

Gipuzkoako eskuz banakako pilota txapelketan, Danel Lanzos izan zen garaile alebin mailan, Legazpiko Markel Arrizabalagari irabazita. "Zorionak eta segi horrela lanean!", adierazi diote entrenatzaileek eta UDAko gainerako kideek.



# Denetarik egon da Gabonetan

Gaur, Errege magoen desfilea izango da Eskoriatzan. Edozelan ere, ekintza asko izan dira Gabonetan herrian: argien pizte ekitaldia, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera, Silbestradie eta erakusleihen lehiaketa, besteak beste

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Gaur, Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege magoak Eskoriatzan izango dira, eta, urtero moduan, gozokiak banatuz desfilea egingo dute, Manuel Muñoz kiroldegitik hasita. Antortxero edo suzi eramaileekin batera, Intxaurtxueta-Gaztañadui-Arbiñoste-Arana-Fernando Eskoriatza plaza bidea egingo dute, eta 18:30 aldera amaituko da, plazan.

Gabonetako ekintzei hasiera emateko, argien pizte ekitaldia izan zen lehenbizi. Musika eskolako kideen emanaldia, txikien eskulanak eta jolasak eta txokolate-jana, besteak beste. Bestalde, Gabonetako haurrentzako jolas parkea ere izan da urte amaieran. Puzgarriak, ohe elastikoak eta bideo jokoak jarri dituzte, baina berrikuntzak ere gehitu dizkiote aurtengo parkeari; adibidez, eskulanen txokoa.

## Olentzero eta Mari Domingi

Olentzerok eta Mari Domingik ere ez dute hutsik egin aurtan. Abenduaren 24an, Apotzaga auzotik traktorean iritsi ziren herrira, eta txikienek eurekin

egoteko aukera izan zuten. Herrian zehar txistulariek eta soinu-joleek lagunduta aritu ziren gozokiak banatzen, Fernando Eskoriatza plazara iritsi arte.

## Silbestradie, euripean

Urteari amaiera emateko, berriz, abenduaren 31n, hamargarren Silbestradie eta zazpigarren Manuel Muñoz Milia Saria jokatu zen Eskoriatzan. Xanpaina, mozorroak, lasterketa eta umore ona izan zen nagusi, eta, eguraldiak ez lagundu arren,

parte-hartzea handia izan zen. Azkarrenak Juan Mari Pozas (4:56:48) eta Nerea Baena (06:25:00) izan ziren, eta mozorrorik onenaren saria, berriz -urdaiazpikoa-, Gabonetako zuhaitzek jaso zuten.

## Erakusleihen lehiaketa

Merkatariei zuzendutako erakusleihen lehiaketako sari banaketa gaur egingo da, 19:30ean, Fernando Eskoriatza plazan. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.



Gaztetxoendako tailerrak izan ziren Fernando Eskoriatza plazan. I.B.



Gabonetako argien pizte ekitaldia. I.B.



Silbestradien parte hartu zuen kuadrilla, mozorrotuta. I.B.



Gabonetako haur parkea. AMAIA TXINTXURRETA



Haurrak Olentzeroren eta Mari Domingiren atzetik gozoki bila. I.B.



Olentzero eta Mari Domingi. I.B.





Manuel Muñoz kiroldegiko sarreran sarea eta kontainerra jarrita, konponketa lanetarako. IMANOL BELOKI

## Kiroldegiko lanak atzeratu egingo dira

Azalera bikoiztua izango duen gimnasio berriko lanak egiten ari dira egunotan. Oraindik ez dituzte bukatu, baina laster amaituko dituztela aurreikusten da. Aingeru Guardatik Kuartuenarako bidegorria, bestalde, asfaltatuta eta erabilgarri dago

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Manuel Muñoz kiroldegiko gimnasioaren azalera bikoizteko eta ixteko lanak azaroan hasi zituzten, eta, asmoa urtea bukatu aurretik amaitzea bazen ere, oraindik obratan dago.

Hainbat hobekuntza egin nahi dira obra horiek; hala, erabiltzaileen eskaerei erantzunez, kirola egiteko leku erosoagoa izan nahi da, besteak beste. Bi helburu dituzte lanek: beheko solairuko gimnasioa hustu egingo dute, bertan gela huts bat izateko, eta kirol ezberdinak praktikatzeko. Goiko aldean, berriz, harmailen ondoan eliptika eta bizikleta estatiko batzuk jarri ziren bere egunean, eta, gune hori egonkortze aldera, harmailen atzeko zati osoan gimnasioa jarriko dute, eremu guztia hartuta.

### Gimnasio itxia

Gimnasioko eremua guztiz bukatzen dutenean, itxi egingo dute, kristalera batekin isolatuz,

intimitate handiagoa izan dezaten bertako erabiltzaileek. Lanak

hilabete honetan amaituko dituztela aurreikusten da.



### Bidegorria asfaltatu dute

Aingeru Guardatik Kuartuenarako bidegorri zatia asfaltatu egin dute, eta lanak laster amaituko dituzte. Orain, hurrengo pausoa tramu osoan argiteria jartzea izango da. Hala ere, bidea zabalik dago, herritarrek erabiltzeko.



Gabonetako zuhaitza lurrean. ESKORIATZAKO UDALA

## "Noiz arte?", galdetu du Eskoriatzako alkateak

Abenduaren 24tik 25erako gauean, plazan jarritako Gabonetako zuhaitza bota zuten ezezagun batzuek

### I.B ESKORIATZA

Abenduaren 24tik 25erako gauean izandako gertaera batzuen harira, "Noiz arte?" galdera egin du Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak: ezezagun batzuek Fernando Eskoriatza herriko plazan jarritako Gabonetako zuhaitza bota zuten, Olentzeroren etxetxoko sarrera behartu eta udaletxearen fatxadako argiztapena botatzen saiatu. Horien inguruko hausnarketa bideratu nahi izan du, ohar bidez.

Gabon gauetik goizaldera gertatutakoaren inguruan hausnarketa bat bideratu nahi izan du,

galdera hauek eginez: "Noiz arte ordu txikietara arte kalean dabilzanen artean batzuek nahi duten guztia egin dezakete? Zergatik ondasun publikoa denaren aurka egin behar da? Zer lortu nahi dute?...".

### Errespetua eskatu du

Bestalde, azpimarratu du elkarbizitzaren ezaugarri garrantzitsuena elkarri diogun errespetua dela: "Errespetua indartuz elkarbizitza indartzen ari gara, baina, zoritxarrez, gure herrian badira hainbat hori ulertzen ez dutenak".

## Beñat Arzadun, Mozambikeko lankidetza programaren gainean

Urtarrilaren 16an Zaldibar antzokian izango da Mozambikeko programaren arduraduna

### I.B ESKORIATZA

Olazar erretiratu elkarteak antolatuta, Mundukide Kooperazio Kooperatibako Beñat Arzadun, Mozambikeko programaren arduraduna, Eskoriatzan izango da nekazaritza-ekoizpenean jarduten duten arloaren gainean hitzaldia eskaintzen.

Mundukideko lantaldea 20 mozambiketarek eta 4 kooperantek osatzen dute, eta bertan egiten dutenaren gainean arituko da Arzadun, eskoriatzarrei informazioa helarazten. Urtarrilaren 16an 19:00etan izango

da hitzaldia, Zaldibar antzokian, eta Mozambiken egiten ari diren proiektuaren nondik norakoak, datuak, eboluzioa eta emaitzak adieraziko dizkie bertaratzen direnei.

### Mundukideren lana, hobera

Azken bost urteetako programaren bilakaera oso ona izan dela adieraziko du, datuei erreparatu; duela 10 urte 500 baserriarekin lan egiten zutela esango du, eta gaur egun, 12.000 baserri baina gehiagorekin ari direla, besteak beste.



# Gabonetako saskibaloia campusean bikain ibili dira

Areskok antolatutako hiru eguneko campusean, 29 haur aritu dira, saskibaloia oinarri izanda, hainbat joko egiten, Manuel Muñoz kiroldegian. Hainbat balio transmititzen saiatu dira antolatzailerak, haurrei saskibaloira gerturatzeko asmoz

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Urtarrilaren 3an hasi zen Aresko Saskibaloia Eskolak antolatutako Gabonetako saskibaloia campusa Eskoriatzan, eta ekimena gaur eguerdian bukatuko dute bertan aritu diren 2005 eta 2009 urteen artean jaiotako gaztetxoek.

Julen Fornies Eskoriatza Kirol Elkarte saskibaloia saileko kirol zuzendari eta Lacturale Art Araski lehen taldeko laguntzaile teknikoak zuzendu du campusa, eta Iñigo Cimiano eta Roberto Bengoa Araskiko harrobiko entrenatzaileak ere harekin izan dira guztia prestatzen. Horiez gainera, Eskoriatzako saskibaloia taldeetako entrenatzaile eta jokalarien laguntza ere izan dute campusa aurrera eramateko.

**Helburu asko**

Egunotan, giro aparta izan da Manuel Muñoz kiroldegian, eta campusean izena eman duten 29 gaztetxoek ederto pasa dute. Hainbat balio transmititzen saiatu dira antolatzailerak, eta, horretarako, hainbat helburu zehaztu dituzte: "Helburua emakumezkoen saskibaloia sustatzea da, alde batetik; bestalde, saskibaloia talde kirola da, eta harremanak indartzen ere saia-



Aresko saskibaloia campusean batutako talde argazkia. IMANOL BELOKI

tu gara hainbat joko eginez. Teknikazio txiki bat ere antolatu dugu, joko gehiagorekin; hala, Gabonetarako ekintza berezi moduan, kirola maitatu dezaten, eta saskibaloira lotu daitezten...", adierazi du Julen Forniesek, Eskoriatza Kirol Elkarte saskibaloia saileko kirol zuzendariak.

Hiru eguneko ekimen horretan, saskibaloian izena emanda dauden egon arren, askorentzat lehenengo proba dela adierazi du Forniesek: "Lehenengo probarekin, hau da, campusean

ondo pasatzen badute, agian, datorren urtean taldera sar daitezke, eta hori ere nahiko garrantzitsua da, nahiz eta asmoa haurrak saskibaloian aritzea den".

**'All Star' txapelketa**

Oinarritik hasita, maila igotzen joan gara. Liga bat proposatu dugu, bosteko taldeetan jokatu dute. Gaur, *All Star* moduko txapelketa izango dugu. Jaurtiketa txapelketa, maneiua eta bote txapelketa... eta, amaitzeko, opari bat jasoko dute bertan izan diren haur guztiek.

urtero moduan, eta joan nahi duenak Inkernun eman beharko du izena, Bilbora joateko antolatu den autobusean joateko.

**Goizez edo arratsaldez**

Aurten, bi aukera egongo dira Eskoriatzatik Bilbora joateko: goizetik joan nahi duenak 11:00etan izango du autobusa, erdiko geltokian, eta arratsalderako joan nahi duenak 15:00etan izango du autobusa. Hain zuzen ere, hamar euro ordaindu beharko da, Inkernun.

## Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu du Inkernuk

Inkernun eman beharko da izena; aurten, gainera, bi aukera izango dira, goizean joan edo eguerdian

**I.B** ESKORIATZA

Sarek antolatuta, urtarrilaren 13an manifestazioa egingo dute Bilbon, *Prest gaude* lelopean. Casillatik abiatuko da, 17:30ean, eta giza eskubideak, konponbidea eta bakea aldarrikatuko

dituzte. "Ziklo berria" ezarri nahi dute antolatzailerak mobilizazio horrekin, eta Bilboko kaleak betetzeko deia egin dio Sarek euskal gizarteari.

Eskoriatzatik autobusa antolatu dute egun horretarako,



Ludotekan gaua pasatu zuten Gatzagako haurrek. ASIER URIZAR

## Ludotekan gaua pasatzen izan dira Gatzagako gaztetxoak

Amaia Elizagoienek ipuin kontaketa musikatuak, dantza, jokoak, eta abar izan dituzte Gatzagako gaztetxoek

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako gaztetxoek *Negulekuak* izan dituzte egunotan. Eta, egindako ekintza guztiak borobiltzeko, gaua pasatzen izan dira ludotekan hamasei gaztetxo, eguaztenetik eguenera bitartean.

Abenduaren 27an irteera egin zuten nagusienek, Gasteizera, katedrala ikustera, eta ondoren, bazkaldu ostean, zinemara joan ziren. Txikienak, berriz, herrian geratu ziren, eta Inuzente egunean askotariko jokoak eta papiak egiteko tailerrak izan zituzten.

## Zabaldute Leintz Gatzagako liburutegia berria

Hainbat urtetan itxita egon ondoren, abenduaren 26an inauguratu zuten Leintz Gatzagako liburutegi berria. Ekitaldian bi ipuin kontalari egon ziren, Mainer Alcelay -umeendako ipuinekin- eta Dorleta Kortazar -helduendako ipuinekin-, eta jende ugari batu zen kontaketa horietaz gozatzera.

Horrez gain, hainbat zerbitzu eskainiko ditu liburutegiak: maileguak, wifia, ordenagailua, inprimagailua eta zinema. Astelehenetan liburuzaina egongo da eta asteko gainerako egunetan, konfiantzan oinarritutako automailegu zerbitzua, bertan izango den txantiloia bat betez erabilgarri.

**Ludotekan lo gutxi**

Hamazortzi gaztetxo batu ziren eguaztenean ludotekan gaua pasatzeko asmoz. Lehenengo, gurasoek prestatutako afaria izan zuten elkarteetan, eta 21:00etan, Amaia Elizagoienek ipuin kontaketa musikatuak.

Hain zuzen ere, hamasei geratu ziren lotarako, eta ordenagailuan musika jarrita dantzan aritu ziren. Honela adierazi du Asier Urizar begiraleak: "Oso ondo pasatu dugu, baina lo askorik ez dugu egin, egia esan. Eguenean jaiki eta joko batzuk egin ostean amaitu dugu ekintza".

## 'Gatza', herritarren erretratuak batzen dituen erakusketa

Leintz Gatzagako herritarren erretratuak batzen dituen *Gatza* argazki erakusketa eta webgunea astelehenean aurkeztuko dute, 19:00etan, Oñatiko kultura etxean.

Hain zuzen ere, erretratuen egile Joxefe Diaz de Tuestak aurkeztuko du, eta Gatzagako udal ordezkariak eta hainbat herritar ere izango dira. "Duela bi urte ateratako liburuari jarraipena emanez, orduan aurkeztutako argazkiak eta beste hainbat erakutsiko ditut. 204 argazkiko mosaikoa eta 38 argazki solte izango dira erakusketan". Erakusketa 18:00etatik 20:00etara bitartean egongo da ikusgai, urtarrilaren 22ra arte.

# Herri jakintza helburu, Herri Curriculumuma

Aramaioko Herri Curriculumuma aurkeztuko dute datorren hilaren 12an, kultura etxean, 18:30ean; hainbat eragile eta herritar elkarlanean egiten ari diren proiektua da hori, 12 urteko aramaiotar batek Aramaiori buruz jakin beharko lukeena oinarri hartuta

## Eneko Azurmendi ARAMAIO

Hirugarren ikasturtea da hau Aramaioko Herri Curriculumuma (AHC) lantzen hasi zirenetik. Udala, San Martin Eskola eta Guraso Elkarteak dira ekimen horretan parte hartzen ari diren eragileak, interesa erakutsi duten beste hainbat herritarrekin batera. Ondorengo galderari erantzutea da AHCren helburua: *Zer jakin beharko luke 12 urteko aramaiotar batek Aramaiori buruz?*

Galdera hori oinarritzat hartuta, arlo desberdinak izango dituen dokumentua garatzen ari dira -Aramaioren historia, kultura, tradizioak, balioak, jarre-arak, nekazaritza eta abeltzaintza moduak, eta abar-. "Nolabait da herria eskolan sartzea eta eskola herrira ateratzea", azaldu du Mari Karmen Garridok, San Martin eskolako ikasketaburua eta AHCko kidea.

Orioko Herri Curriculumuma hartu dute erreferentzia moduan Aramaiokoa garatzeko. Hala ere, alderantzizko bidea erabiliz. "Orion alde tekniko guztia aztertu ondoren garatu zuten sekuentzia didaktikoa. Guk, berriz, lehenengo, sekuentzia didaktikoa egin dugu, eta orain, apurka-apurka gaineko aterki hori guztiori diseinatzen joan gura dugu", adierazi du AHCko kide Iker Elempuruk.

Dagoeneko garatu dute sekuentzia didaktiko bat eskolan, Aramaioko elikadura iraunkorraren gainekoa, hain zuzen, eta, pixkanaka, geroz eta gehiago garatzen joango dira. "Urteak aurrera joan ahala, informazio hori guztiori dokumentatuta eta jasota geratzen bada, kanpoko irakasle batek bertara jo ahal izango du edozein zalantza argitzeko eta ikasleei behar duten informazioa modu egokian emateko", dio Itziar Blazquezek, AHCko beste kide batek. Sekuentzia horiek irekiak izan



Sekuentzia didaktikoaren irudi bat. AHC

## UDALA, ESKOLA, GURASO ELKARTEA ETA INTERESA DUTEN HAINBAT HERRITAR ARI DIRA LANEAN

daitezela nahi dute: "Sekuentzia itxiek ez dute zentzurik eta beste herri batzuetan frogatu da ez direla erabilgarriak".

### Herritarren testigantzak

Herri Curriculumuma garatzen joateko, beste esparru garrantzitsu bat adinean aurrera doazen horien testigantzak jasotzea da, eta izango da. "Herritarrek egin ditzaketen ekarpen guztiak dokumentu batean jaso gurako genituzke -herriaren historia, tradizioa eta ohitura zaharrak, adibidez-, bai grabazio bidez, baita idatziz ere, etorkizun batean testigantza horien beharra izanez gero kontsultatu ahal izateko", azpimarratu du Elempuruk.

### Garrantzitsua herriarentzat

Proiektu hori gauzatzeak Aramaioko herriarentzat garrantzi handia daukala nabarmendu

dute. "Askotan, eskola arautuetan garrantzitsuak diren beste gauza asko erakusten dira, baina bertakoa dena ez. Beraz, ahozko transmisioaren eten hori gainditzeko eta herritarrok Aramaioren garrantziaz jabetzeko tresna interesgarria da AHC", dio Lierni Altuna alkateak. Bestalde, Asier Agirre nekazariak derrigorrezko pausotzat dauka proiektu honen garatzea. "Eskolan ez da ikasten eguneroko bizitzan herrian daukaguna, egiten duguna, nondik bizi garen, eta abar. Alde horretatik, beharrezkoa da eskola mailan gauza hauek irakastea", dio.

Bestalde, Larraitx Arriolabengoa musika irakasleak kultura arloan jarri nahi izan du arreta: "Aramaiok bertso eta musika munduan izan duen afizioa eta emankortasuna azpimarratzeko da, eta hori umeei azaldu egin behar zaie".

### Aurkezpena

Esan bezala, datorren egubakoitzean aurkeztuko dute AHC. Proiektua azaltzen duen dokumentala erakutsiko dute eta Porrotx pailazoa ere izango da aurkezpenean, giroa alaitzen.



NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

## Zenbait kezka

Beldurtzen nau bidegorriren batean euli batek zurrupatu eta inor ez konturatzeak; ohe azpian dagoen horrek galtzerdi pareak nahasteak; marrubizko txikleak delakoan *hierbabuena* ahoratzeak; zubi gorria urdinez pintatzeak.

"Zer moduz zaude?" galdetzerakoan "ondo" erantzun dudana aldiro pentsatu izan dut ea gezurra izan den edo ekonomia linguistikoa. Lehenengo kasuan, sudurra hazteak kezkatzen nau; bigarrenean, garatu dudana gehiegizko nagitasunak.

Beldurtzen nau lehorre garaian pantanoko tranpolinaren bakardadeak; edo gauez kraskatzearen haginak higitzeak; logelako *gotelé*-an Elvis-en aurpegia agertzeak.

Nik "zer moduz zaude?" galdetu izan dudana askotan, nahi baino erantzun luzeagoak jaso ditut. Halakoetan ekonomia linguistikoa erregutzeko tentazioa ezin eusteak beldurtzen nau. Finean, nik galdetu dut, ustez, erantzuna interesatzen zaidalakoan.

Beldurtzen nau, hau idatzi ostean, zer moduz nagoen inork ez galdetzeak, kezka eta beldurrak ez bereizteak.



ALEX MENDIKUTEK

## Argazki proiektioa Sastiñan

Urteroko ohiturari jarraituz, Alex Mendikutek argazki proiektioa egin du Sastiñan Gabonetan, 2016an ateratako argazkiekin. Aramaioko herritarrek agertzen diren irudiak eta Aramaioko paisaiari eta animaliei ateratako argazkiak ere erakutsi zituen Mendikutek. Orain, Anboto tabernan egongo da ikusgai proiektioa.

## Eman zaie behin betiko onarpena Ordenantza Fiskalei

Udalbatzak, urriaren 26ko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion 2018rako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketari. Orain, erreklamazio epea amaituta, behin betiko onarpena eman zaie aldaketa horiei, eta ALHAO-n publikatuta daude dagoeneko (Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala).

## Joskintza tailerrera izen-ematea zabalik dago

Astelehenean hasi eta martxoaren 26ra arte egingo da joskintza tailerra. Astelehenero eskainiko dituzte saioak, bi taldetan banatuta: 17:00etatik 18:30era eta 18:30etik 20:00etara. Plazak mugatuak dira, eta izena emateko -50 euro- ondorengo telefonora deituko beharko da: 625 70 41 23 (Nuria). Josteko makina norberak eraman beharko du etxetik.





Asier del Campo, Aramaion, hiru txapelekin. ENEKO AZURMENDI

## "Urtero ez dut izaten hiru txapel irabazteko aukera"

Asier del Campo pilotari aramaioarrak hiru txapel irabazi ditu –kadete mailan– azken bi hilabeteetan: Arabako Buruz Buruko Txapelketa, Arabako Binakako Txapelketa eta Arabako Trinket Txapelketa; lehena irabazteak konfiantza handia eman ziola esan du

### Eneko Azurmendi ARAMAIO

2017. urte bukaera borobila izan du kadete mailan –15 urte– jokatzen duen Asier del Campo pilotari aramaioarrak, hiru txapela bereganatuta.

Lehena azaroaren 11n, San Martin egunean, irabazi zuen, Ogeta pilotalekuan, Asier Piconen aurka, 18-11. Del Camporen esanetan, garaipen hark konfiantza handia eman zion aurrera begira. "Ez neukan sekula bakarkako txapelketa bat irabazita, eta garaipen harekin asko poztu nintzen", azaldu du.

Bigarren txapela abenduaren 16an etorri zen. Joseba Letona bikotekidearekin, Mikel Aranbarri eta Jokin Larrietari 22-16 irabazi zioten, hura ere Ogetan. Bere hitzetan, garaipen hura ere ez zen erraza izan. Izan ere, eskuak minduta zituztela iritsi ziren finalera, bai bera eta baita Letona ere, eta horrek zaildu egin zizkien gauzak. "Finalurrekoa irabaztea lortu genuen, eta, behin finalera iritsita, ira-

bazi beharra genuela pentsatu genuen, finalak irabazteko dirrelako. Zorionez, hala izan zen", azpimarratu du Del Campok.

Hirugarren garaipena, eta azkenena, pasa den zapatuan lortu zuen aramaioarrak, Gasteizko Estadio trinketean. Alai Lomanaren aurka jokatu zuen eta uste baino errazago nagusitu zen, 30-6. Lomanak trinketean esperientzia handirik ez duela azaldu du Del Campok, eta horrek ere nolabaiteko abantaila eman ziola berari. "Lomana finalera iristea sorpresa izan da. Nire aurkari gogorrena beti izan da Markel Aranbarri, txikitatik, eta Lomanak final-laurdenetan kanpoan utzi zuen. Harritu egin ninduen, baina gauzak ondo egin dituen seinale. Hala ere, bere urduritasuna edo nire esperientzia, ez dakit zer izan zen gakoa, baina irabaztea lortu nuen, eta oso pozik nago. Urtea nahi nuen moduan bukatu dut, hiru txapelekin", nabarmendu du Del Campok.

### Oso pozik

Hiru garaipen horiekin "oso pozik" dagoela aitortu du. "Urtero ez dut izaten hiru txapel irabazteko aukera, eta gustura nago lortu dudanarekin. Beti gura izan dut buruz buruko txapela irabazi, eta horrek eman dit poz handien, baina beste biak ere garrantzitsuak izan dira niretzat", adierazi du.

### Gaztetxoak ere bikain

Infantil mailan, Danel Herrartek eta Markel Arriolabengoak bi final jokatu zituzten abenduaren 31n, bikoteka. Bata Adurtzan –Gasteiz– eta bestea Antzuolako Gabon Kopan. Nahiz eta bi partiduak galdu, maila txukuna eman zuten.



CRISTINA ETXENAUSIA

## Ipuinak eta yoga, elkarrekin

Pasa den egubakoitzean, umeak gustura aritu ziren *Yogipuinak* saioan. Maite Arrese antzezleak ipuin kontaketa eta yoga uztartu zituen emanaldi berean. Hamabi haur inguru batu ziren kultura etxean, eta zenbait guraso ere bai. Arnasa kontzienteki hartzeko ariketak, emozioei erreparatu eta giharrak eta artikulazioak lantzeko zenbait ariketa ere egin zituzten.



CRISTINA ETXENAUSIA

## Umeak, disko festan

Gabonak amaitzen ari dira, eta, horrekin batera, azkenengo ekintzez gozatzen ari dira Aramaioko umeak. Eguazten arratsaldean, adibidez, Party Man disko festan murgilduta ibili ziren, kiroldegian, estilo ezberdinetako abestiak dantzatzu eta kantatuz. Bestalde, atzo izan zuten Gabonetako azken ekintza. Puzgarrietan ibili ziren haurrak.

### Argindar eskaintza faltsuak egiten aritu da norbait herrian

Herritar batzuek aditzera eman dutenez, herrian argindar enpresa ezezagun bateko ordezkari bat ibili da Gabonetan, eta eskaintza berria egiten aritu da. Itxuraz, oraingoarekin alderatuta "oso ona" den eskaintza egin du. Hori dela eta, Udalak egiaztatu du eskaintza faltsua dela eta "adi" ibiltzeko esan die herritarrei oraindik ere.

### Asensiomendiko zur aprobetxamendua, Etorri enpresarentzat

Enpresa bakarra aurkeztu da Asensiomendi mendi publikoko egur aprobetxamenduaren gaineko prozedura irekiera. Beraz, enpresa horri esleitu zaio, eta, dena ondo badoa, martxoa baino lehen bukatuko dituzte lanak –sinatutako kontratuak hala baieztatzen du–. 41.650 euroko kostua izango dute aprobetxamendu lanek –gehi BEZa–.

# Errege magoen desfileak borobilduko ditu Gabonak

Mizpirualdera bisita egin ostean, 19:00etan abiatuko da Errege magoen desfilea Udal Biltegitik (19:00), eta antortxeroek edo suzi eramaileek Bedelkarrek egindako arropa berria estreinatuko dute aurten; euriaren arabera, aldaketak aurreikusi dituzte

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Errege magoen desfilea 19:00etan irtengo da gaur, Udal Biltegitik. Aurretik, baina, Mizpirualde egoitzan egingo dute geldialdia Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek, 17:00etan. Aurtengo desfilean 95 gaztek hartuko dute parte eta, hain zuzen, nobedade nagusia da antortxero edo suzi eramaileek Bedelkar elkarteko saltokiek egindako arropa berria estreinatuko dutela.

Eguraldiak baldintzatuko du, dena den, desfilearen ibilbidea. Ateri bada, honakoa izango da: Udal Biltegia, Masterreka, Ibargarai, Herrilagunak, Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea eta Udal Biltegia. Euri gutxi bada: Biltegia, Barrenkalea eta San Martin plaza; eta Erregeek umeak hartuko dituzte udaletxean. Euri zaparradarik bada, 19:30ean Erregeak zuzenean joango dira udaletxera eta umeek gozokiak emango dizkiete.

**Autobus ordutegi berezia gauz**  
Gauz Bergarara etorri gura dutenendako autobus zerbitzu berezia egongo da. Antzuola, Bergara eta Elgeta arteko autobus zerbitzu berezia izango da 00:00etatik 04:00etara. Bestalde, Eibartik, Soraluzetik, Elorregi-



Baltasar, zaldi gainean herriko kaleetan, iazko desfilean. MAITE TXINTXURRETA

tik, Arrasatetik, Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik ere zerbitzu bereziak izango dira, 00:00etan hasi eta 06:00ak arte.

**Eguraldi txarrari, jolas parkea**

Abenduaren 24an ume bergararrak berotasunez eta ilusio handiz hartu zituzten Olentzero eta Mari Domingi; Katabian elkarrekin eta plazarainoko bidea egin zuten elkarrekin. Gabon kantak abestuz ibili ziren umeak gurasoekin batera. Eta San Martin plazan, miraria... elur malutak goitik behera. Arratsaldean,

Seminarixoko atea ireki zituzten –opari paperez estaliak–, areto berriaren berotasunean umeen gutunak jasotzeko.

Umeen gozamenerako, abenduaren 28an eta 29an jolas parkea izan zen Udal Pilotalekuan. Askotariko puzgarriez gozatze-ko aukera izan zuten umeek, eta, horrez gain, ohe elastikoak, mahai-jolasak eta bestelako jostailuak ere ez ziren falta izan. Frontoiaz gain, Labegaraieta ere jolas parke bihurtu da asteon; martitzenean, eguaztenean eta atzo izan zen zabalik.



MIREN IBABE

## Gipuzkoako lehena, bergararra

2018ko Gipuzkoako lehen umea Danel Gonzalez Iñurrieta bergararra izan da. Urtarrilaren 1eko 03:30ean jaio zen eta hiru kilo pisatu zuen. Maitane eta Jabier gurasoak Soraluzekoak dira jaiotzez, baina, egun, Bergaran bizi dira; pozarren hartu zuten albistea. Urte osoan zehar ogia doan eskuratzeko aukera izango dute gurasoek, Gipuzkoako Okindegien Elkartearen eskutik.

## "Herrian sortutakoa balioan jartzeko", Elkartela lehiaketa

Zibergara taldeak horma digital horretako kartel onena aukeratzeko lehiaketa antolatu du, urtarrilaren 12ra arte

**J.B. BERGARA**

Urtebete pasatu da dagoeneko Zibergara taldearen eskutik Elkartela proiektua sortu zenetik. Bergarako horma digitala da Elkartela, Telegrameko horma digitalean Bergarako herrigintzaren kartelak itsasten dituena. 2017an 200 afixa edo kartel sortu zituen herrigintzak eta abenduan 100 kideen langa gaintitzea lortu zuten –egun, 117 dira–.

Bada, lehiaketa bat antolatzea erabaki dute: "Bi mugarriak ospatzeko, herrian sortutakoa balioan jartzeko, gure ondarea

zaintzeko eta kartelgile artistak omentzeko, *Elkartela 2017* lehiaketa martxan jartzea erabaki dugu Zibergarako kideok". Webgunera igo dituzte kartel horiek guztiak eta bertan sartzen den erabiltzaileak bere ustez politenak diren kartelak aukeratu ahalko ditu, hiru gehienez. Web orria honako hau da: [http://zibergara.net/2017\\_onen](http://zibergara.net/2017_onen). Parte hartu ahalko da urtarrilaren 12ra arte; bozkatzeko, kartel bakoitzaren ondoan dagoen laukitxoan sakatu eta orrialdearen amaieran *vote* sakatu behar da.

## Ireki dute Seminarixoa, opari moduan

Opari baten gisara ireki zuten Mari Domingi eta Olentzerok Seminarixoa, eta abenduaren 24tik aurrera hainbat ekitaldi izan dira: *Oa-Huetak* dantza ikuskizuna, *Do, re, mi family* umeendako antzerkia, Sun magoaren ikuskizuna, Bergarako orfeoi gaztearen eta Sutargi abesbatzaren kontzertua, The Lord eta The Upper Room taldeen gospel kontzertuak...



Orfeoi gazteak eta Sutargi abesbatzak eskaini zuten lehen musika emanaldia. PIKUPE

## OHARRAK

### Udal egutegiaren etxez etxeko banaketa

2018ko udal egutegiak etxez etxe banatu dituzte, gehienak buzoietan. Etxebizitza bakoitzerako egutegi bana utzi dute, baina edozein arrazoiengatik egutegi gabe geratu direnek edo ale gehiago nahi dituztenek Udaltzaingoa jaso ahal izango dituzte. Baserri-auzoetan auzo-alkateek banatu dituzte, edo datozen egunetan banatuko dituzte; auzo-alkaterik ez duten auzoetako bizilagunek ere Udaltzaingora jo beharko dute.

### Martxanterak taldearen saski erotikoa

Martxanterak taldearen saski erotikoren zenbaki irabazlea 799 izan da. *The cemen crew* taldeak irabazi du. "Eskerririk asko zozketan parte hartu duzuen guztioi", diote antolatzaileek.





San Xosepe erretiratu elkartearen Kultura Asteko bazkaria, artxiboko argazki baten. IMANOL SORIANO

## Nagusien premiak aurkitu eta betetzeko behatokia

2017ko azken hilabeteetan, suteak ekiditeko programa jarri zuten martxan Gizarte Zerbitzuek, herriko nagusien premiak antzeman eta horiek betetzeko bidean jartzeko; 147 pertsonak hartu dute parte eta ia %80k diote behar guztiak beteta dituztela

### Jokin Bereziartua BERGARA

80 urtetik gorako pertsonekin eta 65 urtetik gorako pertsonen lagunduta bizi direnekin suteak ekiditeko garatu duten programaren barruan, nagusien premiak zeintzuk diren jakiteko azterketa egin dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Programan parte hartzea erabaki dutenei

galdetu zitzaizen bestelako ze behar duten, eta %79,5ek erantzun zuten behar guztiak asebeteta dituztela.

Izan ere, Gizarte Zerbitzuek bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonekin eta 65 urtetik gorako pertsonen lagunduta bizi direnekin suteak ekiditeko programa garatu zuten atzean utzi

berri dugun urtean. 2017ko udal erroldan, baldintza horiek betetzen zituzten 181 etxebizitza zeuden eta irailaren 18tik azaroaren 9ra bitartean etxebizitza horietako guztietako bizilagunekin harremanetan jarri ziren. Bi pertsona ordurako hilda zeuden, sei pertsona etxebizitzaz aldatuta, 21ek ez zuten zerbitzua nahi,

bat zerrendan errepikatuta zegoen eta beste batek ez zituen baldintzak betetzen. Hala, 147 pertsonak %81- onartu zuten ekimenean parte hartzea eta zerbitzuaren onuradun bilakatzea.

### Azterketak eta aholkuak etxeetan

Udalak azaldu duenez, etxebizitza horietan honako alor hauek aztertu ziren: instalazio elektrikoa, gas isurketen inguruko aireztatzea, gas estufak, kanpaia, telebista, manta elektrikoa eta su hartu dezaketen likidoak. Horiek guztiak ikuskatzeaz gain, pertsona horiei emergentzia egoeran egin beharreko azalpenak eta euren burua babesteko eskuliburua ere banatu zitzaizen.

### 159 ke detektagailu berri

Suteak ekiditeko programaren barruko interbentzioei dagokionez, 129 etxebizitzatan ke detektagailu bana jarri da; hamar etxebizitzatan bina, hiru etxetan hiruna eta baserri batean bost. Hala, guztira, 159 ke detektagailu berri jarri dira. Bestalde, 2014an udalerrian jarritako ke-detektagailu guztiak ere errebisatu dira. Hortaz, gaur egun, guztira 573 etxebizitza dira zerbitzu horren erabilizaile, eta 673 ke detektagailu daude martxan.

### Pertsona nagusien behatokia

Suteak ekiditeko programan parte hartzea erabaki duten pertsonekin Pertsona Nagusien Udal Behatokiko Protokoloa ere

landu da; 2014an jarri zen martxan. Helburua da herrian bizi diren pertsona nagusien egoera aztertu, Gizarte Zerbitzuen laguntza eskaini eta pertsona bakoitzari buruzko txostena osatuz, behar diren interbentzioak martxan jartzea.

### Gehienek, behar guztiak asebeteta

Suteak ekiditeko zerbitzuan parte hartzea erabaki duten pertsona nagusi guztiei galdetu zitzaizen zer behar duten, eta 117k %79,5- erantzun zuten behar guztiak asebeteta dituztela. Beraz, Gizarte Zerbitzuek egindako txostenak jasotzen duenez, elkarrizketatutako biztanleriaren zatirik nagusienaren egungo egoera ona dela egiaztatu zen aztertutako parametro denetan edo gehienetan. Hala eta guztiz ere, datu batzuk antzeman ziren prebentzio neurriak hartzea gomendatzen zutenak egoera orokor ona mantentzeko. "Bakardade sentimenduak, bizitzeko interes falta edo tristura sentimenduak sarriago izaten dira gizarte-laguntzarik ez duten pertsonengan besteengan baino", gaineratzen dute txostenean.

**PARTE HARTU DUTENEN %79,5EK BEHAR GUZTIAK ASEBETETA DITUZTELA ADIERAZI DUTE**



BERGARAKO UDALA

## Sariak erakusleihen dotoreenei

24 partaide izan ditu Udalaren erakusleihen lehiaketak, jaz baino sei gehiago. Bost sari banatu dira: hiru epaimahaiak, laugarrena herritarrek, eta bozkatu dutenen artean ere banatu da sari bat; udal bonutan banatu dira, komertzioetan trukatzeko. Lehen saria Gorosti Ioradendak -ziurtagiria eta

300 euro- irabazi du, bigarrena Amparo ile-apaindegiak -ziurtagiria eta 250 euro- eta hirugarrena Izeder eskulanean dendak -ziurtagiria eta 150 euro-. Herritarren saria Maka oinetako dendak jaso du -ziurtagiria- eta herritarren artean Marixa Davilak irabazi du saria -50 euro-.

## Irabazik dio Boluko frontoirako inbertsioa "neurrigabekoa" dela

Gaia galdeketara "informazio osoa eman gabe" bideratzea kritikatu du koalizioak; esleipen fasea hil honetan hasiko da

### J.B. BERGARA

Boluko frontoia estaltzeko proiektuaren harira Udal Gobernuak -EAJ eta PSE-EE- izan duen jarrera salatu du Irabazik: "Galdeketa, bakarrik Boluko heren batek hartu zuen parte eta aldeko eta kontrako botoen diferentziari dagokionez, aldea oso txikia izan zen. Auzotarrek benetako gastuaren zifra jakin izan balute, hau da, 315.000 euro, proiektua baztertu egingo zutela uste dugu". Irabazik uste du 15.000 biztanle baino gutxiago dituen herri batentzat halako gastu bat

"gehiegizkoa" dela, batez ere, "premia handiagoa" duten beharrrak egonda: "Neurrigabeko inbertsioa da; kritikagarria iruditzen zaigu gobernuak gai bat galdeketara bideratzea informazio osoa eta egiazkoa eman gabe".

### Aste Santuan hastea aurreikusit

Imara enpresak idatzi zuen proiektu tekniko eta lanen exekuziorako esleipen fasea hil honetan hasiko da. Obrak Aste Santuan -martxo amaieran- hastea aurreikusten da eta iraupena lau hilabetekoa izango da.

# "Etxeko lasterketetan aurrean banabil, pozik"

**JOKIN ETXABE** INTERPRO STRADALLI CYCLING ACADEMY TALDEKO TXIRRINDULARIA Miamiako (AEB) hegazkina hartu zuen ziklista bergararrak atzo, eta bertan egongo da hilaren 10era arte, taldekide berriak ezagutu eta urteko helburu zehatzen berri jasotzeko

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Continental mailako Interpro Stradalli Cycling Academy taldearekin sinatu du Jokin Etxabek (Bergara, 1993) 2018rako. Frantziar egoitza, Japoniar erregistratuta dagoen eta babesle nagusia AEBetako duen taldea da. Atzo irten zen Etxabe Miamiarantz, urtarilaren 10era arte iraungo duen kontzentraziara. Ilusio handiz heldu dio urte berriari.

**Zorionak, Jokin! Pozik zaude?**

Eskerrik asko. Bai, pozik nago. Albistea publiko orain egin bada ere, azaroko azken astean banekien hara joango nintzela. Urte berriarekin batera argitaratu gura izan dute nortzuk osatuko dugun talde berria.

**Nola gauzatu da fitxaketa?**

Aevolori [aurreko taldea] eskerrak eman behar dizkiot, euren esker izan da eta posible hau guztia. Sekulako laguntza eman didate eta proiektua pozik egoteko modukoa da. Aurten goitik behera aldatuko da taldea, barruko egi-



Jokin Etxabe, Bergarako Santa Marina parkean, artxiboko argazki baten. XABI URZELAI

tura barne, eta pozik nago proiektu horretako parte izango naizela, gutxienez, urtebetez.

**Egoitza Tolosan (Frantzia) izanik, gertu lehiatuko zara, ezta?**

Bai, eta horixe izan da, hain zuzen, eskaintza honen punturik

erakargarriena. Etxean entrenatu ahal izango naiz, kanpoan ez naiz horrenbeste lehiatuko. Uste dut horrek zerbait egiteko, lorpenei begira, ate gehiago irekiko dizkidala. Baliabide gehiago eta hobeak izango ditut.

**Ze egutegi izango duzue?**

Euskal Herriko eta Espainiako lasterketa gehienetan hartuko dut parte, Euskal Herriko Itzulian eta Espainiakoan izan ezik. Iaz, AEBetako Aevolon nengoen, nire lana hemen ez zen behar moduan baloratzen; orain, ez da aitzakiarik izango. Proba batzuk aipatzearren: Miguel Indurain klasikoan egongo gara, Errioxako Itzulian ere bai, Gaztela eta Leongoan, Asturiaskoan, Madrilgoan, Aragoikoan... Ordiziako klasikoa ere izango dugu, Getxoko zirkuitua... Urtarril amaieratik hasita, egutegi ederra izango dugu; ni Indonesian hasiko naiz, goi mailako lasterketa baten. Izan ere, UCI World Tourreko talde batzuek hartuko dute parte; tartean, Dimension Data, Orica Scott eta Astanak. Handik Australiara joango gara zuzenean, eta han Chris Froomekin kointziditzeko aukerak egongo dira.

**Froomerekin? Ederra litzateke, ala?**

Orain arte Australiakoa denboraldiko lehen proba izan da Froome-dako; oraindik ez dago argi bertan egongo den, baina oso polita izango litzateke telebistan horrenbeste aldiz ikusi dudana ziklista handi horren tropel berean egotea.

**Zer eskatzen diozu 2018ari?**

Hasieratik nire maila ematen saiatuko naiz. Aukeraren bat izanez gero, aprobeztatzen saiatuko naiz eta zenbaki onak ateratzen. Hori eskatzen diot 2018ari.

**Gaur [atzo] Miamiara (AEB) joango zara, hilaren 10era arte. Zertarako?** Zuzendaritzak zer eskatzen duen jakingo dugu, lanerako filosofia zein den adieraziko digute. Eguneroak izango dira; bidaia luzea, hainbat proba egin behar... Etxera etorri eta hamabost egunetan errepidean izango naiz lehiatzen. Aukera polita izango dut, arduradunek badakite eta zer eman dezakidan. Etxeko karreretan aurrean egoteko gai banaiz, pozik egongo nintzateke, eta hori zenbakitara pasatu ahalko banu, borobila izango litzateke.

**Urtebete gehiago maila profesionalen. Nola dago ziklismoa egun?**

Ez dago batere ondo ordainduta, hori argi dago. Bizirauteko ematen du; hala ere, futboleko izan ezik, gainerako kiroletan ere antzerakoa gertatzen da. Ziklismoan, maila honetan, ez dago aberasterik. Hala ere, pribilegiatua sentitzen naiz honetaz bizitzeko aukera dudalako.

**Kontinental mailatik gora ikusten duzu zeure burua lehiatzen?**

Horretarako maila errepidean erakutsi beharra dago. Hona heldu naiz lan asko eta ondo egin dudalako; horrela jarraituko dut, zalantzarik gabe.

**"MAILA HONETAN EZ DAGO ABERASTERIK, BAINA PRIBILEGIATUA NAIZ HONETAZ BIZI NAITEKEELAKO"**



BERGARA KIROL ELKARTEA

## Ume, gazte zein guraso, eskubaloiarekin gozaten

Bergara Kirol Elkarteko eskubaloi sailak antolatuta, Eskubaloi Eguna ospatu zuten abenduaren 23an Labegaraieta kiroldegian, giro ederrean. 10:00etan hasi eta 20:00ak arte, hainbat partidu jokatu ziren. Goizean, neskek zein mutilek hiruko tornea jokatu zuten

infantilen, kadeteen eta gurasoen artean. Ondoren, arratsaldean, garai baten eskubaloi jokatu zuten beterranoen arteko partiduak jokatu ziren. Gero, eguna borobiltzeko, luntxa egin zuten. Egunean zehar klubari laguntzeko kamisetak saldu zituzten, hamar eurotan.

## Bergara lidergoa berreskuratzen saiatuko da Vasconiaren aurka

Domekan jokatuko dute partidua, Agorrosinen (12:00); lider den Ordiziak ere etzi jokatuko du, UDaren kontra

**J.B. BERGARA**

Errege bezperako ospakizunek eraginda, ezohiko ordutegian jokatuko du 2018ko lehen partidu Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak. Domekan izango da, Agorrosinen, 12:00etan hasita. Ohorezko Erregional Mailatik Erregional Preferentera jaisteko postuetatik ihes egin guran dabilen Donostiako Vasconia taldea hartuko dute mahoneroek, eta liga hasieratik euren izan den lidergoa berreskuratzen saiatuko dira. Mikel Juaristiren mutilek orain arte

espero baino maila baxuagoa eman duen Vasconia izango dute aurrean, baina jakinekoea da liga honetan edozein taldek eman dezakeela ezustekoa. Lider den Ordiziak, berriz, Aretxabaleta hartuko du domekan; Bergarak irabazten badu UDaren esku egongo da, beraz, lidergoa berreskuratzeke aukera.

**Saskibaloia eta eskubaloia**

Bestalde, saskibaloi eta eskubaloi sailek ez dute jardunaldi-rik izango hurrengo asteburura arte.



# Gabonetako eskaintzak bete egin du gaztetxea

BetFest jaiak, Bergarako Bertsolari Txapelketako finalak, Sahararen aldeko elkartasun jaialdiak eta elkartasun kotilioiak herritar ugari erakarri dituzte kartzela zaharrera; gaur, Errege bezpera dela eta, Telmo Trenor DJ ezaguna izango da 19:00etatik 22:00etara

## Jokin Bereziartua BERGARA

Gabonak ere mugituak ari dira izaten kartzela zaharrean. Abenduaren 22ko BetFest jaialdian –Bergarako Elektronika Topaketaren aurrekaria– musika elektronikoa izan zen protagonista, herriko Eyharts proiektuaren estreinaldi eta guzti. Eyhartsen emanaldian 100 bat lagun izan ziren eta gauean zehar 200 bat pertsona hurbildu ziren.

## Herriko bertsolariekin gozatua

Gabonek gaztetxean utzi duten beste ekitaldi berezi bat abenduaren 28ko Bergarako Bertsolari Txapelketako finala izan zen. Kopla Barik bertso eskolak goraino bete zuen kartzela zaharra; Eñaut Uriarte, Iñigo Arzelus, Garikoitz Lopez de Munain, Jon Altuna Oxan, Unai Aranzabal, Asier Kortabarria *Moto* –lehenengo hartu zuen parte– eta Jon Patxi Aiastui izan ziren taula gainean. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Ibon Leibar *Txinbo*-k jardun zuen. Agur puntuagarrien ondoren, zortziko handian eta txikian bina bertso bota zituzten; *Txinbo*-k askotariko gaiak planteatu zituen: Kataluniako prozesua abiatu zenetik sexu harremanak %25 igo direla-eta, Otegi eta Urkullu independentzia lortzeko beste saiakera batez aritu



*Txinbo* gai jartzailea eta zazpi bertsolariak final bereziaren amaieran. KOPLA BARIK

ziren; medikuarengana joan eta bizio guztiak kentzearen penaz; abentura zaleak izanda, irla galduan topo egiten duten lagunez; perretxiko haluzinogenez egin-dako tortilla jatearen ondorioez; Goienako kazetariak amaierarik gabeko osoko bilkuretan igarotzen dituzten orduz... Bertsoz bertso, entzuleen barreak eragin zituzten.

Lopez de Munain eta Oxan igaro ziren buruz burukora. Lehen ariketan, Lopez de Munain bertsolari izatea egokitu zitzaion; Altunari, berriz, gai-jartzaile: bertsolariek behera

begira abesteko ohitura dutela eta, Lopez de Munain halaxe dago, baina Altuna gai-jartzailea tranpaz ohartzen da; hau da, zorua txuleta beteta duela bertsolariak. Kartzelakoan, berriz, *Irribarrea berreskuratu duzu* izan zen gaia. Epaimahaiaren arabera, biek maila ona erakutsi zuten, baina Lopez de Munain gailendu zen. "Saio ona egin du irabazleak, umorez eta sentimenduz jantzia; borobila". Txapelaz gain, beste bi sari banatu ziren: publikoaren saria Asier Kortabarria *Moto*-k jaso zuen

eta sari berezia Jon Altuna Oxan-*endako* izan zen.

## Elkartasuna Sahararen alde

Elkartasunerako ere izan da tarterik. Abenduaren 29an jende asko elkartu zen Sahararen aldeko jaialdian: besteak beste, Ttipika dantzak, hennazko tatuajeak eta Hayur Ramsiren, Azkater Peloxen eta Nomadak taldearen kontzertuak izan ziren. Ateratako dirua Brahim Mohamed Ahmed eskolara bideratuko dute. Eta 2018ari behar den

harrera egiteko, elkartasun kotilioia ere izan zuten urtarrilaren 1ean: *photocall* berezia, Ttun Ttun Brigaderen emanaldia, karaokea, DJ Narbai eta Martxanteren saski erotikoaren zozketa izan zituzten.

## Borobiltzeko, Telmo Trenor gaur

Gaur emango diote amaiera Gabonetako egitarauari, Errege bezperako ospakizunen barruan, Donostiako Telmo Trenor DJ ezagunaren emanaldia izango dute-eta 19:00etatik 22:00etara.



Eyharts proiektuaren lehen emanaldiaren une bat, kartzela zaharrean. EYHARTS

## Eyharts: ikusmina eta harridura

Ekainaren 2an egingo den Bergarako Elektronika Topaketaren (BET) aurreko jaialdian, abenduaren 22an, Bergarako bi lagunek osatzen duten Eyharts proiektuaren lehen zuzeneko izan zen gaztetxean. Ikusmin handia eta harridura eragin zituen. "Etorri zirenak aho bete hortz geratu ziren; askok ez zuten ulertzen musika eta irudiak nola nahasten ziren; batzuek zioten pantailak zeudela; beste batzuek, argiak zirela... oso kuriozoso; jendea elektronikara hurbiltzeko gaua izan zen", dio Eyharts-eko kide Jokin Guridik. Ikus-entzunezko emanaldi bat eskaintzen dute, ohiko kontzertu baten formatua mantenduta, baina zuzeneko musika elektronikoa eta era askotako irudiak nahasten dituen. Musika unean bertan sortzen da, sintetizadore eta eritmo-kutxa ezberdinekin, eta horren gainean irudiak sartzen dira, horiek ere unean bertan nahastuz. BETERako "zerbait berezia" antolatu gura dute.

## Herriko artisten zeramika piezak ikusteko aukera Aroztegin

Gaurtik hilaren 14ra arte, teknika ezberdinekin egindako 30 zeramika pieza erakutsiko ditu Buztinzale elkarteak

## J.B. BERGARA

Pintura eta taila erakusketak amaitu ostean, Bergarako Buztinzale zeramika elkartearen txanda da orain. Izan ere, gaur inauguratuko dute urtero Aroztegi aretoan antolatzen duten

erakusketa, 19:00etan. Astebete eta erdiz egongo da zabalik, hau da, bergararrek urtarrilaren 14ra arte bisitatu ahaliko dute; martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era, eta zapatuan zein domekan 12:00etatik 14:00etara.

Buztinzale elkarteko kide Ana Orgazen arabera, 30 bat zeramika pieza erakutsiko dituzte gaur irekiko duten erakusketan: "Raku teknikarekin, plaken teknikarekin eta txurroen edo makarroien teknikarekin egindako piezak ikusi ahal izango dira. Elkartean kide gehiago garen arren, hamabi artisten lanak ekarri ditugu aurten". Buztinzale 2006an eratu zen elkarte moduan eta Zabalotegi kaleko 11. zenbakian elkartzen dira. Kontaktua: [kultura@bergara.eus](mailto:kultura@bergara.eus).

## Aratusteetako kartel lehiaketa, urtarrilaren 15era arte martxan

Aratusteetako egitarauko azaleko irudia aukeratzeko lehiaketa antolatu du, beste behin, Udaleko Kultura Sailak. *Aratusteak 2018, Bergara* testua izan behar du, eta lanak entregatzeko azken eguna urtarrilaren 15a izango da. Irabazleak 350 euroko bonua jasoko du herriko komertzioetan gastatzeko. Argibide gehiago: [kultura@bergara.eus](mailto:kultura@bergara.eus).

## Musika eskolako zazpi ikasle, Euskal Ikasleen Orkestran

Musika eskolako zazpi ikaslek hartuko dute parte Jaurilaritzaren Euskal Ikasleen Orkestran (EIO). EIO Txikian, Miren Elorza eta Maitane Suinaga biolin-jotzaileak eta Paula Calvo eta Uxue Garitano biolontxelo-jotzaileak; EIO Gazten, Maitane Suinaga biolin-jotzailea eta Uxue Garitano biolontxelo-jotzailea; eta EIO n, Mirian Moñux biolin-jotzailea. Zorionak!

# Ilusioa eta festa giroa Gabonetan

2017a atzean utzi eta ongietorria egin diote 2018ari antzuolarrek. 1972a ezkerro hutsik egin gabe, Arrola Mendizale Elkarteak salda eta txistorra banatzen die Arrola-Koroso ingurura gerturatzen direnei; aurten ere ongietorria egin dute

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Gabon egunek une ederrak utzi dizkiete antzuolarrei. Kultura teknikari Jone Larrañagak balorazio ona egin du: "Gospel kontzertua primerakoa izan zen: oso onak kantariak eta oso ona jendearen erantzuna. Lehen aldia zen Antzuolan gopela antolatzen genuena eta ez genekien ze harrera izango zuen, baina herritarrek oso ondo erantzun zuten; jendea oso eskertuta eta pozik zegoen horrelako kontzertu bat antolatu genuelako. Hu-

rrengoan ere ekartzeko eskaria egin digute. Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera ere jendetsua izan zen; eguraldiak lagundu egin zuen, gainera. Kroseko parte hartzea ere geroz eta handiagoa da -185 korrikalari-. Boluntario lanetan ibili direnei ere eskerrak. Haur parkea erakargarria izan den arren, ez da horrenbeste haur ibili".

## Pilotalekua, beteta

Antzuolarrek hartu dute aurtengo Debagoieneko Gabon Ko-

pako pilota txapelketa antolatzeko ardura. Bailarako 61 bikotek jokatu dute. "Oso giro onean jokatu dira partiduak, pilotalekua beteta, eta partida politak ikusi ditugu. Dena ondo atera da", azpimarratu du Andoni Balerdik, Olaldeko kideak.

## Urte hasiera, Arrolan

Hutsik egin gabe, Lizargarate baserrian batu dira 60 bat lagun urteari ongietorria egiteko. 1972a ezkerro Arrolak urtero antolatzen duen ekimena da.



Arrolako kideak Lizargarate baserrian Urteberri egunean. ARROLA ELKARTEA



Olentzero eta Mari Domingi, Herriko Plazan. ANTZUOLAKO UDALA



Gospel emanaldia, Torresoroan. @JONTIRAPU



Gaztetxoak txoriak bezala hegan, haur parkean. TXOMIN MADINA



Haur jolas parkea eskolako patioan. TXOMIN MADINA



Gabon Kopako pilota txapelketako irabazleak. OLALDE PILOTA ELKARTEA



San Esteban kroserako gertu gaztetxo antzuolarrak. MIREIA BIKUÑA



# "Obra ez bada zabaltzen, ez dauka zentzurik"

FELIPE JUAN MARGOLARIA

Felipe Juan margolari kanariarrak 20 urte daramatza erakusketak egiten. Aitz Garbi tabernara sinbologiaz beteriko lan sorta baten erreproduzioak eraman ditu

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Bartzelonan eta Madrilgo aretoetan lanak erakutsi ostean, Kanariar uhartetik irten eta Antzuolan egin berri du gelditua Felipe Juan artistak.

**Oso lan sinbolikoa ekarri duzu Antzuolara.**

Bai; gai batean oinarrituta, sinbologia lantzen dut. Antzuolan ikusgai jarri ditudanak, baina, lan sorta horietako erreproduzioak dira. Tamaina txikiagoa duten arren, oihalean landutako lanak dira; ia-ia originalak.

**Uhartetik irten eta penintsulara salto egitea kostatzen du zuretzat?**

Bai. Guretzako, ez da horren erraza eta egiten ditugun margolanak erakusteko aukera ere murriztagoa daukagu. Tamaina txikiagoko erreproduzio hauek asko lagundu didate bidaiatzeko orduan.

**Antzuolan erakusteko aukera nola sortu zitzazun?**

Beti gura izan dut penintsularen iparraldeaz ezagutu; ez nuen Euskal Herria ezagutzen. Antzuolaren berri izan nuen Kanarietan ezagutu dudako kontaktu bati esker. Eta hortik jaio zen erakusketa egitearen ideia. Familiarekin izan berri naiz abenduan eta erakusketa bisitatzeko aukera ere izan dut.

**Eta ze inpresio daramazu Euskal Herritik? Inspiratu zaitu?**

Antzuolan, Arantzazun, Donostian, Bilbon eta Gasteizen izan gara. Sorpresa hartu zuten, esaterako, erakusketara joan eta bertan ikusi ninduten antzuolarrek. Oso aberasgarria izan zen niretzako. Esan ere, haluzinatu egin nuela Arantzazuko basilikako kriptako margolanekin. Txundituta geratu nintzen. Altxor hori topatzea ingurune horretan ikaragarria izan da. Kontraste handiko paraje naturala eta artistikoa dago. Elizaren bat dekoratu izan dut Kanarietan, baina Arantzazun bizitakoarekin asko identifikatu naiz



Artista kanariarra Antzuolan. FELIPE JUAN

eta garbi izan ideiarekin bat buruan ere ekarri dudala bueltan.

**Zer iruditu zaizu artea kalera ateratzea? Kasu honetan, taberna batean ikusgai jartzea?**

Ezinbestekoa da lanak kalera ateratzea jendearengana hurbil-

tzeko. Lan eta sorkuntza baten garapena ikuslearengana iristen denean amaitzen da. Ibilbidearen parte da ikuslea, eta ez bada lana konpartitzen ez daukala zentzurik esatera ere ausartuko nintzateke.

## 25 lan Aitz Garbi tabernan ikusgai

Urtarrilaren 24ra arte ikusgai izango dira Felipe Juan artista kanariarraren margolanak Aitz Garbin –tabernako ordutegian–.

"Ez dira ehuneko ehunetan lan originalak. Hau da, lan originaletatik hartutako zatiak dira; oihale gainean detaileak erreproduzitu eta landu ditut neurri txikiagoan. Garraiatzeko ere erosoagoa da eta, gainera, saltzeko garaian ere prezio eskuragarriagoa dute", nabarmendu du Kanaria Handiko artistak.

Teknika mistoa erabili du eta kolore biziak dituzte oinarri: berdeak, horiak, urdinak, gorriak eta arrosak. "Norbaiti lanen bat gustatzen bazaio eskuragarri izango du, gainera. Beti etortzen da ondo bidaia gastuak eta estaltzeko; kar-kar", esan du margolariak. Informazio gehiago artistaren webgunean izango dute interesa dutenek: [www.felipejuan.com](http://www.felipejuan.com).



Aitz Garbi taberna. FELIPE JUAN



IKER AIZKORBE

## 2018ko elkartasun egutegiak

Xinkonak herriko haurren marrazkiekin osatutako 2018ko egutegiak kaleratu ditu. "Marrazki lehiaketara aurkeztutako lan guztien artean zozketa bidez aukeratutako 12 lanek osatzen dute egutegia. 10 euroren truke salgai daude Xinkonan bertan, eta batzen den dirua Anelkarrendako izango da", azaldu du Xinkonako dinamizatzaile Alaitz Jauregik.

## Domekan zabalduko da A8M lasterketako izen emate ofiziala

Otsailaren 18an izango da A8M lasterketa eta ia 13 kilometro izango ditu. Antolatzaileek diote orain arteko ibilbide bera izango duela, itxitura bat dela-eta aldaketa txikiren bat izan dezakeen arren.

Izen ematea domekan, urtarrilaren 7an, zabalduko da, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean, goizeko bederatzietan. "250 bat

dortsal egongo dira eskuragarri", azaldu du Gorka Etxezarreta antolatzaileak.

Bestalde, antolatzaileek nabarmendu dute lasterketa herrikoia dela, mendiaz, herriaz eta herritarrez gozatzeko aukera ematen duena. Hori horrela, lasterketa egunerako beste zenbait ekintza ere antolatu dituzte: "Lasterketa 10:30ean hasiko da; ondoren, umeendako minimotoen lasterketa egingo da. Sari banaketa eta hamarretako irekia ere egongo da".



KAXETA

## Mus txapelketa abian da

Herriko mus txapelketako lehen kanporaketa jokatu da. Bigarrena urtarrilaren 12an izango da, Gailur tabernan, 22:30ean. "Mox tabernan izan zen lehen kanporaketa zazpi bikotek hartu zuen parte eta Gorkak eta Markelek osatutako bikotea sailkatu zen urtarrilaren 28ko finalerako", kontatu du Jesus Kortabarria Kaxeta antolatzaileak.



# Gabonak umoretsu eta giro onean joan dira

Kantuan, jolasean eta jokoan eman dituzte Gabonak elgetar gehienek; izan ere, aisialdirako egunak izan dira askorendako. Olentzerok opari asko ekarri ditu aurten ere, eta lagunekin zein senitartekoekin elkartzeko aukera izan da egunotan

## Larraitz Zeberio ELGETA

Herri Eskolako neska-mutikoen Gabonetako azokarekin eta Lorea Larrañagaren eta Maitena Mañarikuaren musika ikasleek Espaloian egindako kontzertuarekin hasi ziren Gabonak Elgetan. Gitarra, piano eta biolin doinuak izan ziren kontzertu hartan, eta adin guztietako parte-hartzaileak.

Biharamunean, abenduaren 23an, jaitsi zen Olentzero Intxortatik. Asto eta guzti etorri zen Salvador ermitatik behera ilundutakoan, baina neska-mutikoak berehala konturatu ziren aurrekoetan baino bizar ilunagoa zuela. Horrela adierazi zuten, behintzat, ikusi bezain pronto. Elgetako trikiti eskolakoekin egin zuen ikazkinak herriko plazarainoko bidea, eta nabarmentzekoa da Adolfo Jainagaren eskolak hartu duen indarra.

Udaletxeko arkupean eserita, Olentzerok argazki ugari atera zituen Elgetako neska-mutikoekin, eta baita gutun mordoia jaso ere. Horrekin batera, biberoi bat eta bi txupete ere eman zituzten. Zakuan sartu eta eraman zituen guztiak Intxortako bere txabolara.

Hurrengo egunean, abenduaren 24an, kalez kale ibili zen ikazkinaren irudia. Maala guraso



Neska-mutikoendako gimnasioan egindako zirku tailerra. ELGETAKO UDALA



Musika ikasleek Espaloian egindako Gabonetako kontzertu berezia. L.Z.

elkartean antolatuta, kantu eskean ibili ziren herritarrek. Jasotako dirua, urtero moduan, seigarren mailako ikasleen ikas bidaia ordaintzeko izango da. Ikasle talde horrek antolatutako zozketak, bestalde, badiu zenbaki irabazleak, eta ez da, oraingoz, saridunik azaldu. Lehenengo saridunari amaitu zaio aurkezteko epea; beraz 163. zenba-

kidun txartelari dagokio saria. Hain zuzen ere, bi lagunendako otordua Maialde landetxean.

### Irteera ugari

Kantsatzeke mendi taldeak Eguberri egunerako Intxortara antolatzen duen irteerak erantzun polita izan du aurten ere. Eguraldi ederrarekin, 25 bat lagun elkartu ziren mendi puntan.



Elgetar taldea kantu eskean abenduaren 24an.. L.Z.



Mendi taldeak Eguberri egunean Intxortara egindako irteera . KANTSATZEKE MENDI TALDEA



Gaztelekuko neska-mutiko taldea Goiengazte eguneko saria ospatzen. GAZTELEKUA

Txorizoa eta salda zituzten zain hamaiketako egiteko.

Neska-mutikoendako jolasparkea eta zirku tailerra ere izan dira egunotan Elgetan. Udalak antolatuta, frontoian eta gimnasioan egin dituzte saio horiek, bigarrena boluntario talde baten gidaritzapean.

Gaztelekuko erabiltzaileek, berriz, irteera egin dute Bara-

kaldoko Gabonetako parkera. Bergaran egindako Goiengazte egunean ere izan ziren eta inguruko herrietako beste hainbat gaztetxorekin egindako ginkanan oso ondo ibili ziren. Sari nagusiarekin itzuli ziren Elgetara.

Etziko, domeka, Intxortara igoera dago iragarrita. Urtero egiten dute, lehenengo eta oraingo gudarien omenez.

## Pilotako txapeldunak

Urtezahar egunean, giro onean joan ziren pilota txapelketako hiru finalak, eta txapeldunak dira Oskar Askasibar, Haritz Gallastegi, Uxue Larrea, Maitena Mañarikua, Oskar Sarasua eta Andoni Elorza.

Neska-mutikoek, berriz, bihar jokatu dituzte finalak. Partiduak 11:30ean hasiko dira. Jarraian egingo dute sari banaketa.



ELGETAKO UDALA

## Saria Txomin de Vegari

Abendu amaieran banatu zituen Euskadiko Txirrindularitza Federazioak 2017ko txirrindulari onenen sariak, eta hainbat modalitatetako ziklistak nabarmendu zituen. Txomin de Vega elgetarrak jaso zuen sari horietako bat. Hain zuzen ere, *down hill* edo mendi bizikleten jaitsieretan master 30 kategorian saritu zuten De Vega.



WWW.FVASCICLI.EUS





Espaloia luzatu eta kristalezko hesiak jarri dituzte Olakuan, adibidez. O.E.

# Olakua auzoa lehen baino irisgarriagoa da

Margotze lanak egitea baino ez da falta lehen faseko lanak bukatzeko. Aurten, auzo osoaren plan integrala egingo du Udalak eta lehenaren arabera erabakiko du zer egin. Hurrengo faseak, baina, datorren urtean egingo dituzte

## Oihana Elortza OÑATI

Fase ezberdinetan egingo dituzte Olakuako irisgarritasun lanak, eta lehena bukatzeaz dago. Lan handienak eginda daude, eta zebra-bideak margotzea baino ez da falta. Falta direnak hila-bete honetan bukatuko dituzte.

## Plangintza

Egokitu duten auzoko lehen gunea Olakua 7-8-9 atarien ingurua da, auzoko merkataritza-gunearen edo zerbitzu-gunearen ingurua. Espaloiak eta eskaileak konpondu eta heldulekuak jarri dituzte, errepidearen asfalto berritu dute hainbat lekutan eta zebra-bideak ere egokituko dira. Aldi berean, San Andres kooperatibak merkataritza-gunearen sotoa iragazgaitzeko lanak egin ditu. Udala eta San Andres kooperatiba elkar-lanean aritu dira irisgarritasun lanak egiten. Garajeak inpermeabilizatzea auzotarrek ordaindu dute. Lanek 240.000 euroko kostua izan dute.

Olakua 60ko hamarkadan eraikitako auzoa da eta irisgarritasun faltak konpontzea izan da lan horien arrazoa. Oraindik badago gehiago egiteko, baina lan horiek identifikatu eta lehen-tasunak zehaztu gura ditu Udalak, eta, horretarako, plan integrala egingo du. "Auzotarren zahartze maila altua izango da Olakuan, San Lorentzon, landa eremuan eta herrigunean moduan. Baina hurrengo zer egin erabaki aurretik auzo osoaren plangintza orokorra egin gura dugu, San Lorentzorako egin zen moduan. Auzoaren 13-14-15 atarien inguruan ikusten da lan batzuk egin beharra, Txiki Txokotik oinez irteteko bide aproposik ez dago egun eta urmae-

**AUZOAREN ARGITERIA PUBLIKOA AZTERTZEA ERE HARTUKO DU OLAKUAKO PLANGINTZAK**

laren ingurua ere txukundu beharra ikusten da. Baina lan gehiago ere egon daitezke eta plangintzak ezarriko du lanen lehen-tasuna. Aurten egingo dugu plan orokor hori eta jasotako faseak egiten datorren urtean hasiko gara", azaldu du Hirigintza zinegotziak, Irati Etxeberriak. Argiteria publikoaren azterketa ere plangintzan sartuko dute.

## San Lorentzo eta Zubillaga

San Lorentzoko irisgarritasun lanek, bestalde, jarraipena izango dute aurten. Udaberriaren ekingo diote fase berriari. Auzo erditik zeharkatzen duen errepidearen erdi ingurutik, igogailuen paretik, gutxi gorabehera, tuneleko sarrerarainoko zatian egingo dituzte lanak. Aste Santu ostean hasiko dira. Zubillagan ere egingo dituzte lanak aurten. Hirugarren eta azken fasea egingo dute, auzoaren erdigunea. Lan horien aurrekontua 240.000 eurokoa da, bakoitzean.

## Zazpi ikastaro eta batukada da jabetze eskolaren eskaintza

Tailer bakoitzak bere egutegia du eta hasi aurreko zortzi lanegun lehenago eman behar da izena udaletxean

### O.E. OÑATI

Herriko emakumeen topagunea eta gogoetarako eta prestakuntzarako espazio izateko hasi zen Andraitz talde feminista jabetze eskola antolatzen. Udalak hartu zion erreleboa joan den urtean eta Berdintasun Sailak antolatu du bigarren urtez.

Zazpi tailer eta batukada dira aurtengo eskaintza eta lehenengo ikastaroa astelehenean hasiko da; mindfulness-ari buruzkoa. Urtarrilean beste bi ekintza hasiko dira: 10ean irrati tailerra eta 20an batukada.

### Aurretik

Gatazka politiko eta sozialak bizi izan dituzten emakumeen historiak berreskuratzeko tailerra otsailaren 20an hasiko dute eta martxoaren 7an, berriz, autodefentsari buruzkoa. Ez da defentsa pertsonaleko tailerra bakarrik; autoestimu fisiko eta psikologikoa landuko dituzte. Ikasiko dute nola saihestu arrisku-egoerak erasoak ekiditeko, eta indarkeria sexistaren zergatiak aztertuko dituzte, euren buruak babesteko dauden tresnak ezagutu, eta erabiltzen ika-

si. Gainerako hiru tailerrak apirilean izango dira. Lehenengo brikolajeari buruzkoa izango da. Emakumeek erremintak erabiltzeko gaitasunik ez duten mitoa *desmuntatu* gura du tailer praktikoa horrek. Menopausia eta sexualitate ikastaroa apirilaren 12an hasiko dute eta hurrengo egunean, 13an, feminismoan trebatzeko ikastaroa.

Ikastaroak 20-25 ordukoak dira, euskaraz nahiz gazteleraz, eta bakoitzak bere egutegi propioa du. Ordutegiari dagokionez, berriz, astean zeharrekoak 18:00etatik aurrera izango dira eta zapatuetaoak, goizez, partaideen lan-jardun eta libre dituzten orduetara ahalik eta hobekien egokituko. Parte hartzeko, izena eman behar da; kasu guztietan, tailerra hasi baino zortzi lanegun aurretik. Izena udal-erakunde bulegoetan edo Udaleko webgunearen bitartez eman daiteke.

Aurrera begira, orain arteko ibilbideari buruzko hausnarke-ta prozesua zabalduko du aurten Udalak, egindakoa baloratzen eta aurrera begirako prozesuan pentsatzeko.



GOIENA

## Erakusleihen politenak, sarituta

Amalur belar dendak irabazi du aurtengo Gabonetako erakusleihen lehiaketa. Epaimahaiak saritu dituen hurrengo lau komertzioak izan dira: Iramira, Trikitx, Urtxin eta Andrea Azkoaga. Herriarren saria Kimu-Urtxin loradendaren Kale Barriko dendak irabazi du eta parte hartzaile guztien arteko zozketan Kuttun izan da zorteduna.





Kirol sarietan aitortza jaso zutenak, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. MIREIA BIKUÑA

## Urtean egindako lana aitortu zaie kirolariei

2017ko Oñatiko Kirol Sariak banatu dituzte; zortzi, guztira. Tartean, hiru aipamen berezi izan dira, kirolaren bueltan eginiko lanagatik. Mikel Ugarte triatletarentzat eta Izarraitz Muñoz eskubaloitza taldekoentzat izan dira sari nagusiak

**Iker Oñate** OÑATI

Hemezortzigarrenez banatu dituzte Oñatiko Kirol Sariak, herriko kirolarien jarduna aitortu guran. Zortzi sari banatu dira orotara; eta hiru aipamen berezi izan dira horien artean. Epaimahaiak ez ezik, herritarrek ere izan dute kirolarien lana aitortzeko aukera, bozka bidez. Hain zuzen, Jon Altube txirrindulariak jaso ditu boto gehien -%32-; harekin batera, Nerea Diaz igerilaria, Xabi Lete mendi lasterkaria eta Ihanire Urteaga triatleta ziren hautagaiak. Horrenbestez, Altube "pozik" azaldu da jasotako esker onarekin: "Oso sari berezia da niretzat. Ederra da herriak urtean zehar eginikoa modu honetan aitortu izana".

Bestalde, Mikel Ugarte triatletarentzat eta Izarraitz Muñoz eskubaloitza taldearentzat -egun, Fagor Industrial izenpean dihardu- izan dira epaimahaiaren sari nagusiak. Besteak beste, aitortzak eragindako "ilusioa"

azalarazi du Ugartek. "Sorpresaz jaso nuen deia. Eta ilusio handia egiten dit errekonozimendu hau jasotzeak; oso berezia da niretzat. Finean, behin baino gehiagotan etorri izan naiz sari banaketa ekitaldira, ama saritu dutenean. Orain, ordea, niri eman didate saria; eskertuta nago oso", aitortu du. Marisol Ramos korrikalaria da haren ama.

Bestalde, Izarraitz Muñozeko mutilek azken urtean eginikoa aitortu gura izan du epaimahaiak. Besteak beste, Burgosen lehiatu ziren denboraldi bukaeran, mailaz igotzeko ahaleginean; ez zuten lortu, ordea. Bada, Mikel Agirre taldeko jokalaria "pozik" azaldu da sariarekin: "Plazer bat da halako aitortzak jasotzea.

**MIKEL UGARTE  
TRIATLETAK JASO  
DU 2017. URTEKO  
KIROLARI ONENAREN  
SARIA**

Aurrera segitzeko indarra ematen dute; beraz, harik eta gogo handiagoz berrelduko diogu denboraldiari". Aipatu beharrekoa da taldeko entrenatzaile Aitor Aranburuk bakarkako saria ere jaso duela, 2017ko entrenatzaile onenarena.

Horiez gain, ostera, Esteban Ugarterentzat ere izan zen aitortzarik, kirolaren alde egindakoagatik. "Nirea ez ezik, pilota sailaren bueltan ibilitakoentzat eta dihardutenentzat ere bada honako sari hau", adierazi du.

**Aipamen bereziak**

Bestetik, aipamen berezirik ere izan zen kirol sarietan: zehatz esanda, aurtan, Txema Beitia golf jokariarentzat -eginiko denboraldiagatik-, Aloña Mendiko pilota sailarentzat -mende erdia betetzeagatik- eta Unai Arregi zein Sergio Gilentzat -automobilismoaren bueltan egindako lanagatik- izan dira horiek.




EUSKAL PRESO POLITIKO ETA IHESLARIEN LAGUNAK

## Areto futbolean, arrakastaz

Azken urteetako ohiturari eutsiz, areto futboleko txapelketa izan da Gabonetan. Hain zuzen, herritarrek bi egunez jardun dute Zubikoan, gau eta egun, kanporaketa formatuko txapelketan nor baino nor gehiago. Bada, Tripakixak eta Bayer De Los Caidos taldeak izan ziren nagusi. Guztira, 34 talde lehiatu ziren abenduaren 27 eta 28 bitartean.

## Urteko azken lasterketa jende askorendako

Urtea kirola eginez bukatu zuten oñatiar askok, San Silvestre lasterketarekin. Guztira, 335 korrikalarik esku hartu zuten. Hain zuzen ere, Kamel Ziani eta Marisol Ramos korrikalariak izan ziren azkarrenak. Horiez gain, aipatu beharrekoa da Mikel Ugarteren, Andoni Correasen, Amaia Bernalen eta Miren Josune Bikuñaren lana.



Marisol Ramos. OIHANA ELORTZA



ALOÑA MENDIKO SASKIBALOI SAILA

## Saskibaloiaz gozaten

Urteroko tradizioari eutsiz, Aloña Mendiko saskibaloitza sailekoek hitzordua finkatu zuten Gabon jaietarako: saskibaloitza txapelketa. Orotara, 21 lagun taldek eman zuten izena; eta, horien artean, Albok eta Malas Pulgas taldeak izan ziren nagusi. Horrez aparte, izan zen zelai erdiko eta hiruko jaurtiketen lehiaketek gozatzeko aukerarik ere.



# Erregeek urteroko bisita egingo dute gaur

Gaur, egubakoitza, ibiliko dira Erregeak herriko kaleetan, 18:00etan hasita. Oñatiko hainbat neska-mutikoren laguntza izango dute. Aurretik, baina, zaharren egoitzara joango dira, bertan daudenei bisita egitera

## Iker Oñate OÑATI

Erregeak gaur arratsaldean ibiliko dira herriko kaleetan. 16:30ean dute lehen hitzordua, San Martingo zaharren egoitzan: opariak banatuko dizkiete bertakoei. Eta ostean joango dira Oñatiko neska-mutikoengana; herriko kaleetan ibili ostean -18:00etan, Bidaurretan hasita-, udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango dira, haurrek eurekin egoteko aukera izan dezaten. Aurten ere Txanda dendari elkarteak izan du Errege magoen desfilea antolatzekeo ardura, hirugarrenez.

Bada, hiru karrozatan joango dira Erregeak, bakoitza modu batera dekoratuta -dagokion Erregearen arabera-. Eta herriko 65 neska-mutikoren laguntza izango dute ibilbidean. "Ohar orriak banatu ditugu herriko ikastetxeetan, gura duenak kabalkadan esku hartzeko aukera izan dezan", azaldu dute Txandako kideek. Ostean, askaria egingo dute desfilean esku hartu duten gaztetxo horiek.

## Aurretik, zaharren egoitzan

Esan bezala, Erregeen jarduna ez da haurren girora mugatzen. Horiez gain, herriko zaharren egoitzan dauden ere izaten dute haien bisita; aurten, 16:30ean. "Senideek erosten dizkieten opariak banatzen dituzte Erregeek. Eurekin egoteko ere aprobeztatzen dute", azaldu dute antolatzaileek.

## Jarraipena eman guran

Herriko dendarien elkarteak duela hiru urte heldu zion Errege magoen desfilea antolatzeari, ordua arte zihardutenek errelebo bila zebiltzala. Eta, ordutik hona, hainbat berrikuntza izan ditu ekitaldiak. Besteak beste, hiru Erregeak ez dira lehengo berdinak, eta, bestetik, zaldiaren gainean beharrean, karrozatan doaz horiek.



Baltasar, karrozan, Oñatiko herritarrek agurtzen. GOIENA



Olentzero, domekan, neska-mutiko batzuekin. GOIENA

## Bisita ordua aldatuta, harrera ona

Aurten, ezohiko ordua aukeratu dute Olentzerok eta Mari Domingik herria bisitatzeko: arratsaldean beharrean, 12:30ean agertu ziren herriko plazan. Eta herriko neska-mutikoek ez zuten hutsik egin. "Jende asko bertaratu zen", dio Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak. Dena den, azaldu du asko luzatu zela hitzordua, "16:00 ingurura arte edo", eta, beraz, aurrera begirakoa antolatzeko "aintzat" hartuko dutela hori.

Ordua aurreratzeari dagokionez, bi arrazoi aipatu ditu Zubiak: "Antolatzaileek berandu joan behar izaten zuten afaltzera, eta, ilunkera parte horretan, ilaran egoteko giroa ez zen oso ona". Hala, beste herri batzuetako esperientzia ikusirik erabaki zuten bisita ordua aurreratzeko. "Ikusi genuen herri horietan harrera ona izaten zuela ekintzak; proba egitea erabaki genuen", gaineratu du.



Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaren bukaerako unea ALBERTO ELOSEGI - XDZ

## Puntako bertsolaritza egongo da gozagai gaur gauean

2017ko Bertso Txapelketa Nagusiko finalean jardun zuten zazpi bertsolari izango dira Zubikoan

## I.O. OÑATI

*Ixa, ixa, BEC!* lelopean aurkeztu du Txinparta bertso eskolako aurtengo hitzordua. Bada, azken urteetan bezala, bertsozaleek punta-puntako saioa izango dute gozagai Errege egun bezperan -gaur-. 22:30ean hasiko da bertso saioa, Zubikoa pilotalekuan. Zehatz esanda, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Igor Elortza, Aitor Sarriegi eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek jardungo dute agertokian. 2017ko Bertso Txapelketa Nagusiko finalisten artean, Unai Agirre besterik ez da falta, beraz.

"Duela lau urte berdina egin genuen, orduko finalistekin. Harrera ona izan zuen egitasmoak; beraz, esperientzia errepikatzen saiatzea erabaki genuen", azaldu du Mirari Sagarzazuk, Txinparta bertso eskolako kideak.

Ohitura bihurtu da Errege egun bezperako bertso saioa, baina ez da urteko bakarra. Era askotako hitzorduak antolatzen dituzte Txinpartakoek. Eta, azaldu dutenez, herriko jaietako saioarekin batera, gaurkoa da jende gehien erakartzen duena. Gauzak horrela, aurrez jarri dituzte sarrerak eskuragarri, Txokolateixan. Geratzekotan, gaur gauean ere izango da horiek erosteko aukerarik, 10 eurotan -edizioa ixtean, oraindik bazen sarrerarik-.

## Aniztasuna bertsorako gaietan

Txinpartakoek eurek aukeratzen dituzte bertsolariek jorratu beharreko gaiak. Bada, askorik aurreratu ezin duten arren, adierazi dute "aniztasuna" bilatzen saiatu direla. Hala, bertsolariek "eroso" abesteko gaiak hautatu dituzte, "entzuleei zer pentsatua eman guran".

## Mursegok gaztetxeko agertokian joko du etzi, domeka

Maite Arroitauregi *Mursego* musikari eibartarrak Antixena gaztetxean jardungo du etzi, domeka, 12:30ean hasita. Bost euroren truke eskura daiteke sarrera, egunean bertan, Antixenean. Orain arte, musikariak hiru lan ditu kaleratuta, txeloa oinarri hartuta. Hain zuzen, %100 Oion bataiatu du azken diskoa.

## Gora egin du zinemako sarreren prezioak

Urte berriarekin batera, gora egin du herriko zinemarako sarreren salneurriak. Hain zuzen ere, urtarilaren 1etik aurrera, aurreko urtean baino 50 zentimo garestiagoa da bertara sartzea. Orain, 4 euro ordaindu beharko dira haurren emanaldietan eta 5 helduenetan. Ikuslearen egunean, bestalde, 4 eurotan esku- ra daiteke sarrera.





**SAN SILVESTRE TRAIL** Bi lasterkari Irala kalea gurutzatzen, publikoaren animoek bultzatuta. XABIER URZELAI

## Lagunarteko torneoekin betetako Gabonak

San Silvestre probak han eta hemen, eta gaztetxoenei zuzendutako lagunarteko torneoak; Gabonetan kirol hitzordu mordoak izan dira. Klubetako ordezkariak –jokalari zein arduradun– ez dute lasaiturik hartu, nahiz eta ligan etenaldia izan

**Xabier Urzelai** ARRASATE Gabonetako torneo gehienak lagunartekoak izan dira, nahiz eta egon den goi mailako ikuskizunik –Euskadik eta Marokok Oñatin jokaturako lagunarteko eskubaloia partida, esaterako–. Arrasate Hiria Xake Txapelketan, berriz, benetako lehia izan da (informazio gehiago 10. orrian). Hitzordu horiek alde batera utzita, urteko lehen GOIENAK azken bi asteotan izandako herri mailako torneoetako erretratuak batu ditu, ahaztu barik Arizmendiko ordezkariak Realeko eta Eibarko puntako jokalariek batu zituela Ibarren.

Torneo horietako asko klubetako ordezkariak antolatu dituzte, nahiz eta ligan atsedean izan lanerako gogoz daudela erakutsi dute; egiten duten jardunagatik aitortza merezi dute denek. Eta beste torneo asko, berriz, herri mugimenduetatik sortu dituzte; esaterako, Oñatin antolatu dituzten eskubaloikoa eta saskibaloikoa.

Bada, hori gutxi balitz, urteko azken eguna kirola eginez agurtzeko makina bat aukera izan da, San Silvestre lasterketei

esker. Abenduaren 31n, arratsaldean, ez zen giro kalean, gogotik bota zuen-eta euria. Goizean, baina, Bergarako San

Silvestre Trail lasterketan, Irala kalea eta San Martin plaza goraino bete ziren lasterkariak animatzeko.



**KUADRILLEN TORNEOA** Oñatin eskubaloian ibili dira lagun artean. M.B.



**2017IXA2018** Oñatiko Sansilvestre lasterketako podiuma asfaldan. OIHANA ELORZA



**MANUEL MUÑOZ MILIA** Eskoriatzako Silbestradien mozorrotuta ibili ziren. I.BELOKI



**ARETXABALETAN SAN SILVESTRE PROBA** Eguraldi txarrari umore ona. M-ALTUBE



**EUSKADI-MAROKO** Puntako lagunarteko eskubaloia partida izan zen Oñatin. M.B.



**BERGARAKO GAZTE MAILAKO TORNEOA** Realak UDARI irabazi zion finalean. BKE





**GABON SARIA BERGARAN** Pilota eskolako gazteen artean hamar sari banatu zituzten. A.E.



**JUDO TOPAKETA** Aretxabaletan erakustaldia egin zuten gaztetxoek. A.E.



**HIRUKO TORNEOA BERGARAN** Frontoian 30 bikote ibili ziren lehiatzen. A.E.



**TXELISEN OMENEZKO TORNEOA** Realak eta Beasainek jokaturako finalean, penaltien txandan nagusitu zen Beasain. BEASAIN KE



**BELODROMOAN** Lokatzakoak Aristirekin izan ziren. LOKATZA



**SAKIBALOI FESTA** Oñatin kuadrillak ibili ziren lehiatzen. E.A



**MINIBASKET TORNEOA** Ointxe!-k 400 neska-mutiko batu zituen Iturripen. O. AGIRRE



**BIXENTE ETXEANDIA** Gazte asko lehiatu ziren torneoan. A.T.



**EMAKUMEZKOEN GABONETAKO TORNEOA** Realak irabazi du aurtengo txapelketa, Eibar sailkatu da bigarren eta Debagoiena hirugarren. I.SORIANO.





Sari banaketa ekitaldian, Uxue Arzelus erdian. MIRARI ALTUBE

## 'Paris' lanak irabazi du 'Karmeale Igartua' beka

Bergarako Idazle Eskolak eta Aretxabaletako Udalak elkarrekin deitutako sorkuntza bekaren zazpigarren edizioan, Uxue Arzelus donostiarrak jaso du 2.500 euroko saria, 'Paris' lanagatik; aipamen berezia, ostera, Alaitz Olaizola azpeitiarrarendako izan da

**Eneko Azurmendi** ARETXABALETA  
Epaimahaiko kide izan den Pako Aristi idazleak eman du sarien berri. "Hogei lan jaso ditugu, eta maila oso ona erakutsi dute guztiek", adierazi du, eta gaineratu: "Aitzindaria izan da, gidoiak saritzen dituen lehiaketa oso gutxi daudelako". Jasotako hogei lanetatik bi dokumentalak izan dira.

Sari nagusia Uxue Arzelusen *Paris* lanak jaso du. Honela laburbiltzen du donostiarrak bere gidoiak: "50 urte inguruko emakume postari baten bizitza kontatzen du. Bakarrik bizi da eta nahiko bizitza monotonoa dauka, bere bi katuekin. Egunero errutina bera jarraitzen du eta bere bizitza horretara mugatzen da. Etxetik lanera eta lanetik etxera. Egun batean, postal bat ikusten du, arreta pizten diona. Parisen bizi den seme batek bere amari bidalitako postala da. Ondo pentsatu ostean, irakurtzea erabakitzen du eta ordutik aurrera, astero irakurtzen du seme

horrek amari bidalitako postala. Parisengatik interesatzen hasten da, bere bizitzarekin alderatuta, oso desberdina delako, eta zenbait bidaia planteatzen hasten da. Nola aldatu dezakeen bere bizitza halako txikikeria batek...".

*Paris, je taime* izeneko pelikulatik hartu du pertsonaia. "Zuzendari ezberdinek egindako hainbat film labur dira, Parisen kokatuta daudenak. Horieta batek emakume estatubatuar baten istorioa kontatzen du, Parisera joan dena eta bere familiar gutun bat bidaltzen diona, Parisko egonaldia kontatuz. Emakume horren nolabaiteko aurreko bizitza kontatu nahi nuen, "azaldu du.

**ETORKIZUN BATEAN, GIDOI HORI FILM LABUR BIHURTUTA IKUSI NAHIKO LUKE ARZELUSEK**

Aitortu du ez zuela espero saria jasotzerik. "Bere garaian, lagun batek bidali zidan beka honen inguruko informazioa, eta, nik gidoiak idazten ditudanez, lan bat aurkeztea erabaki nuen, baina zeharo ahaztuta neukan; ezustean harrapatu nau".

Etorkizun batean, gidoi hori film labur bilakatuta ikusi nahiko luke Arzelusek. "Gustatzen zaidan gidoi bat da eta polita izango litzateke gauzatzea. Hala ere, orain ez daukat denbora handirik horrekin jartzeko", dio.

### Aipamen berezia

Diru saririk gabeko aipamen berezia eman diote Alaitz Olaizolak idatzitako *218* lanari. "Originaltasuna, kontakizunaren interesa, euskara dotorea eta zorrotza hartu dira kontuan, besteak beste, aipamena egiterakoan", zehaztu du Aristik.

Azkenik, 2018ko sorkuntza bekaren gaiaren berri eman dute sari banaketa ekitaldian: helduendako poesia.



Il trovatore emanaldiaren pasarte bat. OPERA 2001

## 'Il Trovatore' opera-kontzertuko sarreraren erdiak agortuta daude

Otsailaren 19an izango da emanaldia, 20:00etan, Amaia antzokian, Opera 2001 konpainiaren eskutik

### E.A. ARRASATE

Opera munduan gehien antzeztan denetako bat da Giuseppe Verdiren *Il Trovatore*, ospetsuenetakoa izatearekin batera. Arrasateko Ozenki elkarteak antolatuta, Amaia antzokian emanaldi horretaz gozatzeko aukera izango da otsailean, Opera 2001 konpainiaren eskutik.

Antonio Garcia Gutierrez (1836) dramaturgoaren *El trovador* obran oinarritzen da opera hori, eta amorrua, mendekua, maitasuna, sorginkeria eta heriotza dira lanaren ardatzak.

Pertsonaia nagusiak hauek dira: Conde Luna (baritonoa); Leonor (sopranoa); Azucena (mezzosopranoa); Manrico (tenorra); Ferrando (baxua) eta Ines (sopranoa).

### Opera 2001

Ozenki elkarteak kide Manu Gallardoren esanetan, Opera

2001 berme handiko konpainia da, Espainiako Estatuan dagoen onenetakoa. "Gurekin egon diren guztietan kalitate handiko espektakuluak eskaini dituzte. Kasu honetan ere aktore, musikari eta abeslari ugari osatutako abaniko zabal bat eskainiko digute, Martin Mazik maisu handiaren gidaritzapean", dio.

### Sarrerak

Dagoeneko sarrera erdiak baino gehiago saldu daude eta honako bide hauek erabili daitezke eskuratzeko: Kutxabanken, Arrasateko Udalaren webgunean, Amaia antzokiko leihatilan eta [ozenkielkartea@hotmail.es](mailto:ozenkielkartea@hotmail.es) helbidera idatzita. 30 euro da sarrera. Gallardok sarrerak erostera animatu nahi izan ditu herritarrak eta debagoiendarrak. "Bi orduko musika emanaldi bikaina izango da, kalitate handikoa", azaldu du.

## Kartel berezia eta erakargarria Kooltur Ostegunetan

Urtarrilaren 11n, Dr. Maha's Miracle Tonic talde bilbotarra etorriko da. 2011n sorturiko talde bat da. Western, swing eta rhythm-and-blues estiloak jorratzen dituzte eta oholta gaineko *show* baten bitartez 40ko hamarkada islatzen saiatzen dira kontzertuetan.

Bestalde, hilaren 18an, 1.280 Almas talde kolonbiarrak eskai-

niko du emanaldia. 1992an sortu zen, Bogotan, eta musika elektriko, herrikoia eta gordina egiten dute, euren esanetan. Usurbileko Higain estudioan ari dira grabatzen disko berria.

Azkenik, hilaren 25ean, Svetlanas talde errusiarrak joko du. Hardcore, punk rock musika egiten dute, letra kritikorekin. 2014an Putinek debekatu egin zuten Errusian jotzea.

Kontzertu guztiak Arrasateko gaztetxean izango dira, 22:00etan, eta sarrera bost euro izango da.



# Euskal Herriko I. Rally Topa egingo dute aurten

Euskaltzaleen Topaguneak film labur rallyen rallya jarri du martxan, euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko; orain, Euskal Herri mailan egiten diren film laburren lehiaketaren egutegia prestatzen ari dira, guztiak kontuan hartzeko

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

2018an egiten diren euskarazko film laburren lehiaketa guztietako finalisten finala egingo dute abenduan, Irudienean, Durangoko Azokan. Helburua da euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzea eta indartzea eta, horrez gain, film laburren lehiaketa horiek guztiak ezagutaraztea. "Euskarazko sorkuntzari ekarpen handia egiten diote lehiaketa hauek, eta hori oso garrantzitsua da. Hori horrela, nor bere herrikoetan bakarrik ez, beste edozein lehiaketatan parte hartzea ere gonbidatu nahi ditugu herritarrek"; azpimarratu du Leire Lardizabalek, Euskaltzaleen Topagune kideak.

Batez ere, sortzaile gazteengan eragin nahi da egitasmo horrekin, baina herritar oro parte hartzea gonbidatuta daudela ohartarazi dute.

## Sariak

Esan bezala, I. Rally Topa 2018ko abenduan izango da, Irudienean, eta han finalista guztien lanak proiektatuko dira. Epaimahai batek baloratuko du zeintzuk diren lan onenak eta publikoak ere bere hitza izango du epaimahai moduan, publikoaren saria egongo da eta.



2017ko Kameratoiko sari banaketako argazki bat. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Rally Topean gailentzen direnek, Euskal Herri osoko onenak izatearen ohoreaz gain, saria ere jasoko dute. Honako hauek dira banatuko diren sariak: 24 ordu baino gutxiagoan sortutako film laburrak: 300 euro eta sorpresa; 24-48 ordu tartean sorturiko film laburrak: 300 euro eta sorpresa eta Publikoaren Saria -proiektatuko diren lanen artean aukeratua-: 300 euro.

## Egutegia osatzen

Rally Topean parte hartuko duten film laburrak ezaugarri ko-

munak dituzten lehiaketetatik etorritakoak izango dira: 12-48 orduko tartean eta gai, leku eta objektu bat oinarri izanda egingo diren euskarazko film laburrak.

Hori dela eta, ezaugarri horiek dituzten lehiaketa guztien egutegi bat egiten ari da Euskaltzaleen Topagunea. "Badakigu asko direla. Horregatik, ahalik eta egutegi osoena egin nahi dugu eta horretarako guztion laguntza behar dugu", dio Lardizabalek.

Lehiaketaren baten berri emateko, [kultura@topagunea.eus](mailto:kultura@topagunea.eus) helbidera idatzi daiteke.

## Governors Oñatiko gaztelekuan izango da bihar, lan berriarekin

22:30ean izango da kontzertua, eta, arrasatearrez gain, Kimera taldeak ere joko du; sarrera zortzi euro da

**E.A. OÑATI**

Governors taldeak bere seigarren lana aurkeztu zuen abenduaren 6an Durangoko Plateruena antzokian, Z.E.R.O. -Zikloari Ekin dio Rhinopalpak Ohartzerako-, eta disko horren aurkezpen bira

egiten ari da orain, Euskal Herriko hainbat txokotan. Hamar abesti ditu disko berriak, eta *Bizhilik* eta *Diabolus* dira lan honetako singleak. Melodiak ardatz hartuta, rock eta metal doinuak uztartzen dituzte arra-

satearrek Z.E.R.O. lanean ere, eta bihar, zapatua, horretaz gozatzeko aukera izango da.

Governorsen kontzertuaren aurretik, osterara, Kimera talde oñatiarrak lehen diskoa aurkeztuko du -*Kimera*-, *Tximino ixilak* single moduan hartuta. Stoner, metal edota pop doinuak ere antzeman daitezke hirukote oñatiarraren kantuetan.

